

# IPUIÑAK V ATALA



OTAZUA TA ASUA'TAR BENITO

ERREKALDEKO LAGUN ARTEA KULTUR TALDEAK ARGITARATUA

# IPUIÑAK V ATALA



OTAZUA TA ASUA'TAR BENITO

ERREKALDEKO LAGUN ARTEA KULTUR TALDEAK ARGITARATUA

**IPUIÑAK  
V  
ATALA**

**EGILEA  
OTAZUA'TAR BENITO**

**MARRAZKIGILEA  
AÑON'TAR ESTIBARIZ**

2000

ARGITARATZAILEA.- ERREKALDEKO LAGUN ARTEA KULTUR TALDEA  
BIZKAIKO FORU ALDUDIAREN DIRU-LAGUNTZAZ

Lege Gordailua: BI-857-00

Fotokonposaketa eta inprimaketa: Flash Composition, S.L.  
Alda. Rekalde, 6-48009 BILBAO

## AURKIBIDEA

OROIKARRI GABEKO ERRIAREN OROI MINGARRIAK .....	9
JOSTAILU MIRAGARRIA .....	41
GURE IKURRIÑA .....	49

## OROIKARRI GABEKO ERRIAREN OROI MINGARRIAK

Euskal-erriko itxasalde zoragarri dan toki, alde, politenatariko baten Urtziñe deritxon errixua dago.

Iparralde'ik itxasoan urestatzen dauazan mendiska-lerroa, Ego-aldetik muru-aitz batek, Sortalde ta Sartaldetik errekatxu ur oz-kirri ta gardendun bik mugatuz, Urtziñe lurrez edatsua da, batez be bere bosteun bat biztanle kontuan izanik.

Urtziñe erri apal oroitzarri batxu bat be ez dagon onetan, bertako biztanleak, nekazariak geien bat, baketsu ta alai bizi dira. Euren solo ta ortu edatsiak landu, ardi, bai ta idi batzuk, sendia, seme-alabak, elikatu al izateko aiñakoak euren ondasun guztiak izanik, eta jai dantza tolesgabedunak, eta gizon adifñekoak erriko tabernan tantxa ta musaldi anbat edo beste egifñik, euren bizitza urtziñatarrei atsegintsu joakoen. Asaba zaarraren ekandu onak babesten, jagoten, saliatzen ziran eta euren izkuntza bakarra euskera zan.

Ez-jakin onein ondasunak onek ziran, etxalde, abere, ekandu oitura zaarrak eta izkuntza, euskera. Nekazaritzan saliatzen ziran bitartean eizta zaleak inguruetako baso; abaro, troka ta osin lurraldetan, erbi, basurde, oilogor eta beste egazti batzuk arrapatzen ekiñez, eta erria zearkatzen eben erreka ur gardendunetan arrantza zaleak euren zaletasuna asetuz batera, sendia elikatzeko etxera zerbait sarritan eroaten eben.

Erriko kanpandorrea ludiko bikain, liraiñena zala, ta euren kanpai-ots soiñua bezalako gozo, alai liluragarriagorik entzun ezinezkoa zala, uste eben neka-

zari oneik, euren bizitzaz atsegintsu ziran. Urtziñetarrak ameskeri gabe bizia eroen. Bekaitzkeria be Urtziñetar tolesgabedun biztanleentzat auzokidea ez zan.

Erri arrun, apal, ospe-gabedun onetan, danakaitik aitzuta bizi dan erritsu onetan danakaitik esan dot, baiña ez da guztiz egia, serga-batze sasoian jaur-laritzta eurekana urreratzen da, gogoan izaten dauz, bai, erri erdi-aitzu onetan oroigarri battxu bat be ez dago, bertako biztanleen artean ta euren asaba artean be indianotar bi izan ezik, oneik be ameriketan eskuratu ebezan ondatsunakaitik soilki, uts-utsean, ezagunak dira, Urtziñen ez da izan gizaseme ospetsurik. Erriko abade jauna, osagile ta idazkaria eurari dagokien itzaltasunagaitik ezagunak dira.

Erria, mendiska motz baten artean an emenka eraikita diran basetxeak, bost bat etxe eraiki barriak ete kanpai saratatsudun kanpaidorre, Urtziñatarrentzat ludiko ederrena, batek gailurtzen dauan eleizeak, osotzen dabe.

Ortu, lantzar, solo ta landa edatsudun arana iru errekatxuk zearkatuz, lugintzarako guztiz onurakorra da, eta egia esan, erritarrak, nekazariak, legortea aundienetan be, legorte aldietan aran osoan izaten dan ezotasuna errekatxu orrein urestaratzearen ondorioa dala jakiñik, euren urbasak, errekatxuen urbasak, ondo garbituz, zainduz, euren esker-ona agertzen dautse.

Urtziñetarrak, geienak beintzat, nekazariak dira. Erriko abade jauna, osagile eta idazkaria izan ezik, beste guztien bizi-bidea lurgintza da. Erdisugin, errementari, erdi-nekazari bat, eta beste erdi-arotz, erdi-nekazari bat be erritarren artean izanik.

Urtziñe erri baketsu, oroigarri-gabe ta gizon ospetsu-gabeko onetan, Txomin Iturriotz basetxekoa ta Mikel Errekatxukoa, biak nekazariak, dira biztanle, erritar, ospetsuak ez ba dira be, bai ezagunenak. Euren, Txomin eta Mikelen erriospea nekazaritzan daben trebetasunagaitik ez da, ez, Langileak ba dira, bai, baiña sarritan, sarriegitan euren solo ta ortuak kuntutasunez landu gabe agertzen dira.

Solorako arorik onena danean be, Txomin eta Mikelen txakurrak erbi anbatan aztarna dala ta, ausika, zaunka sumatzen ba dabez, lurgintzarako lana bazterturik, or doaz gure nekazari biak eiza-izkilua sorbaldetik dindilizka dabezela txakurren atsean.

Erritarren artean Txomin eta Mikel ezagunak, eta erri-albistetan sarritan aiatuak ba dira, eiztari trebeenatarikoak diralako da. Eurak, Txomin eta Mikelek esaten dabenetik, euren kañoi biko eiza-izkiluetan kartutxo bat soilki eroaten ei dabe. Eurak leenengo danbadeaz erbia izan, naiz basurde zein egartzia izan, ankaiz gora izaten dala, autortzen dabe.

Egia esan, eiztari, geienak beintzat, salbuespena arlo guztietan izaten da ta, apur bat erronkariak izaten dira, eta Maxi ta Txomin apur bat baño geiago.


Iturriotz baserriko etxaguna ta Errekondoko nagusia, Txomin eta Mikel, eiztari guztiz trebeak ziran, bakoitzari berana, Amabiko bat eper eta beste ainbeste pozpolin bakoitzak euren garrikotatik dindilizka eskegita eroatea ez zan arritzekoa. Eizaki ugari lortzen ebenean, Txomin eta Mikel arroputz erriko-tabernatik igaro barik etxeratzea, eziñekoa zan. Ze argibide obarik euren eiztari-ospea areagotzeko?

Azaldu bearrezkoa da irakurle, Txomin eta Mikelek, lurralde aretan eiztari-tzan gailurrean izateko erbi-txakur eta oilogor-txakur banaren laguntza ebela. Txakurrak, eiztari guztiak, emen ez dago salbuespenik, euren txakurrakaitik esaten daben lez, erri ta alboerritako txakurrik trebe, onenak ziran, beintzat Txomin eta Mikelek olan iñoen.

Naizta gure eiztariak gizon gazte, sobero, errokontsuak izan, gizonki jokatzea nai ba dogu, auzi onetan errazoaia eiztariaren aldetik dala, apaltasunez aitortu bear dogu.

Inguru aretako lurraldetan ziran sastraka, troka, errekatxu, lokazti, urbasak, Txomin eta Mikelek ondo be ondo ezagutzen ebezan, euratan milaka oilogor, mior, uso, ate ta beste lumadun egazti eizatuak ziran.

Baita be euren jaiotze erria inguratzen eben mendi-basoetan, Zuri ta Baltz erbi-txakurrak aurretik zirala makiñatxu bat kilometro, eiza-izkilua ta



*Txomin eta Mikelen erbi-txakurrak eiztan.*



narru-zorrotxua janari apur bat eta ardao satoaz lepoan, erbi lodikote arrapatzeko, iltzeko, naian, ibiliak ziran.

Azaroko egun eguzkitsudun baten, Mikel azpigarria bila joateko idi bikotea buztartzen zala, ara non, Zuri ta Baltza, erbi-txakurrak, etxe alboko lantzarretik mendiska gora, erbi aztarna sumaturik, auzi, zaunkadaka larri, non ikusten dauazan, non doazan.

Mikelek, txakurren zaunkadak entzutean, zekorrak, idiak buztartzea laga ta txistu bat bere lagun Txomiñeri egifiñik, or doaz biak, auzokide biak or doaz, eiza-izkilua lepoan eroazela mendi magaletik gora ariñeketan, larri, ito bearean txakurren zaunkadak entzuten ziran lekurantz.

Mikelek idiak gortaratu ta lotzeko astirik be ez eban izan, ostaz ostaz bere andreari aginduak jakin-azoteko astia izan eban.

Pelisa!... Idi bikotea gortan lotu eizu ta janari apur bat be emoiozu... Aaa... beste gauza bat... datorren lganderako Inazio gure semearen urtebetetze jaia opatzeko okeleaz ez zaitez arduratu... gaur neuk erbiki gozo-gozoa ta ugari eskuratuko dautsut!...

Txomiñek, Mikelen txistuak, deadarrak entzun ebazan eta bereala arazoaz konturatu, ba ekian zer esan nai eben. Saltukada baten eiztari biak alkarregaz izan ziran. Eiztari biak euren eiza-izkilluak, eskopetak, arturik, dindilizka, sorbaldatik dindilizka eroezela, or doaz bata bestea baño leiatsu, urduri, arreta aundiz mendi gorantz txakurren zaunkadak entzuten ziran lekurantz. Adi-adi, erbia txakurren aurretik noiz ikusiko zain.

An geratu ziran idi bikote, Mikelen idiak an geratu ziran, baita be gurdi ta azpigarria. Mikelek, txakur-auzi, zaunkadak soilki entzuten ebazan, bere gogoan, Mikelen gogoan txakurrak, erbi ta erbi-aztarna, beste ezerentzat ez egoan lekurik.

Euren sorgoraldian, Mikel eta Txomin, On mateo osagilearen albo-albotik igaro ziran, zaprastadaka, arnasea be bete ezifiñik, erdi-itota joiazan, eta euren larritasunean On Mateogaz ez ziran konturatu, eta onen agurtzea Txomin eta Mikelengandik erantzun gabe geratu zan.

Arraio arraioa! nora joasak orrek?, On Mateok bere baitan iñoan, olan ba joasak, abiada orretan ba joasak, erbia arrapatzeko txakurren laguntzarik ez jabek bear izango. Langile, beargifiñ onak ba dozak, baiña etxaldeko lanetarako ez dozak ain azkarrak...

Zuri ta Baltza txakurren auzi, zaunkadak, geroago ta asoago entzuten ziran. Dirudienez erbia, ta beraz txakurrak bere atsean, mendi magaletik aran, ibarrera jaitsirik, Zubiarte erekatxua zearkatuz, Batxi, bizi-bidez artzaifia bera, bizi zan lurraldetarantz abiatu zan.

Batxi, mutil zaar, lan-bidetzaz artzaiña, eun bat ardi ta Pinto ardi-txakurra lagun ebazala, Zamurdi basetxean bizi zan. Zuzen be, Txomin eta Mikel bizi ziran mediska aurrean, aurrez aurrez aurkitzen zan mendi naiko goi baten.


Batxi eiza-izkiludun aitzaria ez zan, baiña egoltzez edo xederaz erbi ta untxi bat baño geiago arrapaukoa bai.

Euskalerrian eizatzea baserritarrentzat, baserritarren bizi-biderako laguntza, ta sarritan ez txikia, izanik, eta gure lurraldetan aldi aretan, erbi, untxi, basurde ugari aurkitu, ez da arritzekoa bertako biztanleak, nekazaritzan ez eze eiztaritzan be jarduntzea. Baita eizaki lumadunak be, oilogor, mior eta batez be egaberak, Neguko egun ekaitz, edurtzetan, baserritarrak aukera sekulako izaten eben eizakia jateko.

Batxi bere ardien esneaz egiten ebazan gaztai gozoak eta artxo bat edo beste zalduaz, bere bizi-tza estualdi gabe, nasai eroan. Ezkontzatza be ez zan arduratzen. Gai onen buruz, ezkontzatza bere lagunak itauntzen ebenean, Batxin erantzuna beti izaten zan bardiña.

Nire arrea Pantxikiek ondiño ezkontzeko gazteegia nazala diño, Batxi barre zantzo lagun ebala iñotsen.

Batxi gizon gaztea ez zan, berrogetamar urtera urreratzen joian. Andra, arrea deduzko, zintzo bateri esker, Zumurdi basetxe ta inguruak zikin, loikeriz beterik ez ziran agertzen, bera be, Batxi bera be, soiñeko ta oiñetako kutun-



*Erbia ariñeketan ikeska.*

tasunez zainduakaz agertzen zan, ta bere praka ta alkondara bikain leundu, lisatuetan aletxo, botoi, baten utsik be ez zan ikusten.

Batxi, Igande ta jai-egunetan dotore, zidarra bera bañõ be dizdiratsuago erdiko Mezara joaten zan.

Bere arrebea, andra alarguna, seme-alaba biaz Zumurdi alboko etxean, Bekoetxe basetxean, bei bikote bat etxaldeko lurrak landu ta etxerako bear eban esnea eurakandik lorturik, mizkeri gabe baiña gose ez larritasunik barik be, bere sendia bizi-bide deduzko nekazaritzan, ezitu eban.

Bere semea, Manu, amalau urtedun mutil goi, sendo, mutil apal, esaneko, men, kristau zintzoa. Abadetzarako ikasketak egiteko, apaiztegira urte beratan joateko asmu eban. A ze abade on errikoia izango zan!

Mutilla apaiztegira joatean, bere amak basetxeko lanetarako laguntza berezia galtzen eban,

baiña bere seme-alabaren etorkisuna, eta abadetzan izanik ondiño oba, gauza guztien ganetik ezarririk, amaren lan, neke, izerdi guztiak, ondo eskeiñiak ziran.

Eta zer esan bere alabatzaz, Miren bere alabaren buruz?. Miren amabi urte bete-barria, ile, ule, kirru, ule-txorta bitan kutuntasunez orraztuaz, arpegi matrail gorriska, larrosak aiñako margo gorridun biziaz, azal bigun, samurra, naizta ondiño umetxu bat izan, etxeko lanak, etxea garbitu, soiñeko, jantziak garbitu ta jaki batzuk janaritu, bazkari ta afaria gertatzen ba ekian. Bene-benetako altxor bat bere amarentzat. Osaba Batxin, neskatillaren osaba Batxin, soiñeko ta oiñetako garbitasunak be, neskatil onen lanagaz, zer ikusia ba eben.

Baiña gure eiztari, erbi ta txakurrakaz zer jazoten zan, jakin daigun.

Eguna amaitzera doa. Edoi artetik aldiska agertzen zan eguzki epelaren izpi makalak euren berotasuna galdurik, izotz, lei-aize firi-firi batek aurpegia astindurik, eiztari ta txakurrei, etxeratzeko sasoiu eldu dala adierazoten dau-tze.

Txomin, gure txakurrek erbi-aztarna galdu dabe, bein eta barriro ortxe goian, Batxi Zumurdikoren lantzar sasiz inguratuta dagon orretan, erbi-aztarna galtzen dabe.

Ez dakit ze arraio izan leiteken, ze arraio jazotzen dan toki orretan, erbiaztarna, ain bero-bero daroen erbi-aztarna, lantzar orretara txakurrak eltzean, bertara eltzen diranean etentzea, niretzat bakana iruditen jatan gertaera bat da. Baiña txakurrak eta baita be ni be, guztiz nekatuta gagoz eta etxera joatea ego-kiena izango jakula, ez dozu uste?, Mikelek bere lagunari esan eutsan.

Bai danok gagosak guztiz nekatuta, onena etxeratzea izango joguk. Izan be, erbitzar deabru orrek itzela be itzela egin jauskuk... Nongo ikastetxean ikasia ete dok... Edozelan be, irakasle trebeak izan jozak...

Ikastetxean diñok, ikastetxe-nagusian esango dot... Orrek latin be ba jakik eta...

Baiña itxaron dagiala, Txomiñek jarraitu eban, arrapatuko joguk, ziur.

Txistu saratatsu, deadar bezela txistu saratatsu bat Txomiñek egin eban eta bereala txakurrak, basaz eta lupetzez beterik, euren ugazabakana urreratu ziran.

Oraingoan gure eiztariak oitura eben lez, au da erbi edo beste eizaki zerbait ilten ebenean erriko-tabernatik biratxu bat egin, oraingoan bertatik ez ziran igaro. Artez-artezen euren txakurrak lagun ebezela etxeratu ziran.

Naizta gure eiztariak egun guztiz gogorra emonda izan, Mikelek bere aldar-te, umore ona, ez eban galdu.

Gaur Txomin etxeraten nazanean ez jakit zelan atonduko nazan, bere lagunari Mikelek esan eutsan.

Zer ba? Txomiñek erantsuna.

Datorren Igandean gure mutillaren urtebetetzea opatzeko nire andra Peli-zari erbikia neuk eroango jautsadala esan jautsat, eta orain andra errukigarri arek, arategira joateko dirua bearko jok, Milekek iñotsan.

Bai, bai, ori olan dok; baiña zuek dirua ugari daukazue, Txomiñen erantzuna.

- Diru, dirua gurean! Dirua gurean ganbaratik ganezka dariola jagok, iñotsan Mikelek. Badakik leengo egunean Aurrezki Kutzako zuzendari jaunak zer san eustan?

Ara Mikel, kutxako langileak iñostan, ille pare baten gure kutxara ezingo dozu dirudik ekarri. Orain amabost ekarri zenduan dirutsa dala ta, gure kutxatan diru geiago non sartu ez daukagu. Ja! Ja! Ja!..., barre-zantzoka Mikelek iñotsan.

Ibarreko kurutzadara eiztari bikotea eldu zan, eta bakoitza bere txakurra, gose urdaillean eta gorputzan otza ebezala banandurik, makalmakal euren etxeetarantza joan ziran.

Mikel bere etxera, Txomiñengandik aldatuta Mikel bere basetxera eldu zanean, bere andra Pelisa urduri, bere gizonaren ezagertze, bere gizona egun osoan ezagertzeak eragiten eutsan larritasuna dala ta, etxe aurrean, Errekatxu basetxe aurrean urduri, kezkatu egoan, bere gizonaren begira egoan.

Etxe aurreko barrutitik zear gizona etxerantz etorrela ikusirik, ikusi orduko, Pelisa beragaz topo egitera ariñeketan joan.

Gizona..., Pelisa bere gizona agurtzeko asti gabe, aurrez aurrez Mikel ikusi ebanean, esan eutsan.

Egun osoan non deabru egon zarie ba?... Atxilotuta euki zaitue, ala?...

Andratxu maite, gaur egun ziztrin, zorigaiztokoa izan dogu. Egun osoan erbitzar, urteak eragiten daben jakitun guztian jabe zan erbi zaarkotxo bateaz topaturik, bere atsean ibili gara, zoritxarrez alegin guztiak, erbia arrapatzeko egin doguzan alegin guztiak, alperrikoak izan dira.

Ementxe, etxean, bero-berotan, nik baño gaurko eguna askoz be obeto emongo zenduan, ziur. Nire itxura errukigarria ez dozu ikusten?... Nire aurpegiaren gose ta otz itxureak ez zaitu nigan errukitzen?... Sentitzen dodana, datorren Igandean gure mutilaren urtebetzea ospatzeko erbikirik ez dautsudala ekarri, da, Andratxua, okela bila Apin arategira joan bearko dozu, Mikelek maitekiro esan eutsan.

Baiña goazen sutondora ta bertan, sute, sukaldean, jazoriko guztia, gaurko kondaira azalduko dautsut, baiña mezedez errietarik ez eistazu egin!

Ez, ez, nire gizon maitea, zuretzat ez dot ezelako asarrerik. Esan dautsudana nire larritasunaren ondorio izan da, parkatu eistazu, Pelisak esan eutsan, eta biak alkar-besarkatuta etxeratu ziran.

Etxe barnean, suten, Pelisak jarraitu eban.

Datorren Igandeko bazkarirako erbiki utsa ba dogu, orregaitik ez zaitez larritu. Oilotokian untxi batzuk ba daukaguz, eurretarik bat kentzeko, saltzeko asmua neban, olan aukera polita izango dot untxi bat edo beste ilteko. Orrez ganera, oilo zaartxutariko bat, gangar luzeduna, bai gizona... beñola txalak zapaldu ebana..., azpalditxuan guztiz alperturik ikusten dot, ez daust arrautzarik ipinten, baleiteke egazti ori be kazuelatua izatea, Igandean beragaz saltza gozo bat egitea, zelan edo alan gure seme maitearen urtebetetzea bear bezela espatzeko atonduko naz. Igandean bake ba da bazkari ederra eukiko dogu, Pelisak esan eutsan.

Bai, baiña nik, erbikia jateko, Igandean. erbikia jateko gurari bizi-bizia neban... Mikelek erantzun eutsan.

Andra-gizonaren alkar-izketa olan etendurik, andra Pelisa bere gizonarentzat jaki bero-bero bat gertatzen sukalderatu zan, eta Mikel naizta guztiz nekatuta etxeratu, gortatik entzuten ziran abere murrusak makaldu naian, laztotégira igon eta bertatik bedar legor apur bat bei eta idientzat jaitsi eban.

Biramonean goizean, Mikelek bere zekor bikote buztarrian ikasi-barriak ziranak, lorketan trebetasun geiago jabetu egien, buztartu ta Zumardi goi

aldean eukan basotik, narran mukur batzuk, egia esan bere andrea luzarotxutik ebillen matrakan, etxe inguruan sugarri oso gitxi sukaldetzeko eukalako, ta Pelisa bide batez ixiltzeko baño ez ba zan be, gurbitx egur apur bat etxeratzea bururatu jakon.

Mikel bere idi-buztarriaz mendi magaletik gora Zumurdi basetxe ingurura eldu zanean, Batxi, Zumurdiko etxaguna ote-sega zorrezten ikusirik, beragatu, beragana urreraturik aupada bateaz agurtu eban.

Egunon Batxi, zer ota apur anbat ebateko asmua dozu, ala?

Gure gortako abereak azpigarri utsa dabe, ta ba dakizu, azpigarririk kortan ez ba dozu erabilten, gero solo-ortutarako satsik be ez dozu eukiko, ta lurrak sats gabe uzta guztiz urriak emoten dauz, Batxik erantzun eutsan.

Bai alan da, sats eta guztiz be, lurra aro onenean landu, azirik bikaifienak erain, landarak ondo be ondo jorratu, uzta lar onegiak ez doguz lortzen, Mikelek erantzun eutsan.

Atari barnean jezartzeko asmuz, Mikel apurka-apurka bertarantz abiaturik, Batxiri esan eutsan.

Ementxe aulki onetan ementxe zillegi bear daustazu, Batxi. Atzotik guztiz nekatuta nago. Nire adiskide Txomin eta biok egun osoan erbi baten atzean ibili giñan eta nire akidura, nekea, orren ondorioak dira.

Bai, zelan ez, jazarri zaitetz mezedez, bitartean iturritik ekarri-barria dan ur ozkirria ekarriko dautsut. Esne apur bat be, beraz ozkirriozkirria, nai ba dozu ba daukat. Ardaorik ezin naikezu opa, ni upeltegi gabeko basetxe etxagun kazkarra naz eta..., Batxik iñotsan.

Ura bai Batxi ta ozkirria ba da oba. Ekarri eistazu ura arren, baiña esnerik ez.

Batxi ura billa joan zan une beratan, iparaizeak bultzatuz etxera barneratzeko atea guztiz idégita, zabal-zabalik geraturik, sukalde, suteko leioan eskegita erbi eder bat, narrua kenduta, Mikelek ikusi eban. Zalantza barik erbikia zan eskegita egoena, ta zuzen be, aurrerako egunean bera il naian ain-beste neke, otz eta gose jasan bear izan eta izerdi ugari izuri azo eutsen erbi ber-bera zan. Orretzaz, Mikelek ez eban zalantzarik eta Batxiri diñotso.

Zu Batxi, or suteko leioan ekegita daukazun erbia, guk, gure txakurrak atxo aurretik, euren aurretik ibilli ebana ez da?, non eta zelan arraioa erbi ori arrapau dozu, ba?

Zuen txakurren aurretik ibili zana bada, ez dakit, berak olakorik ez eustan esan eta..., Batxik, txantxa zalea bera be, iñotsan, erantzun eutsan.

Batxi, gaur txantxetarako aldarte, umorerik ez dot. Datorren Igandean nire seme Inazioen urtebetetzea da, ta erbi orregaz jai ori espatzeko, bazkari eder-

eder bat egitea, sukaltzea, asmau neban... Orain erbikiaren orde, untxikia jan bearko dogu..., Mikelek motelki iflotsan.

Tamala da, Mikelek jarraitu eban, egun osoan erbi batean atsean, erbi-txakur onenatarikoakaz, ibili, gure txakurren erbi-aztarnaren bidez erbia ilteko aukera sekulako izan, eta beste gizaki, gizaseme batek, ezertxu be egin barik, izerdi tantal eta nekerik izan gabe, erbi ber-bera arrapatzea tamala da, bai, benetan!...

Zuk badakizu Batxi, eiztarien artean oiturazkoa dala, ez legezkoa, eizaki baten aztarna lortzen dauan eiztariak, bere txakurrak zuzen be, naizta beste batek, beste eiztari batek, eizaki ber-bera eskuratzen ba dau, erbi, basurde, bas-untxi zein egaztia izan, eiztari aztarna lortzen dauan eiztariak beraganatzeko, eizakia beraganatzeko eskubidea dauala. Ori bai, kartutxo edo beste izan dauazan kalteak ordainduz, eizaketa onetan izan dauazan kalteak ordainduz... Baiña... zu eiztaria ez zaran lez...

Ara Mikel, Batxik eten eutsan bere bakar-izketa, zuk diraustazun guzti ori nik ondo dakit, baiña ni ez naz zure taldekidea, ni ez naz izkilu, eskopeta'dun eiztaria, alan da guzti be arazo onetan, gertaera onetan, orrek ez dau leba aundirik.

Adiskide on batentzat zeuskat, Batxik jarraitu eban, zure adiskidetasuna, zugaran dodan adiskidetasuna galdu ez eze sendotzea da nire nai, guraria. Ondo ba deritxazu arazo au ondo zuzendu geinke.

Datorren lgandean zure seme Inazioaren urtebetetzea dala jakin-azo daustazu, zorionak berantzat eta baita be bere sendi osoarentzat. Egundorretan zuk erbikoa jateko gurari bizi-bizia dozula esan daustazu, eta ni zure naia ori oso-osoan bete daiten aleginduko naz, saiatuko naz.

Ikusten dozun lez, Batxik ifioan, erbi au eder-ederra da, okelatan bost kilometrik gora izango da, apur bat zaarkotxotxua ba da, baiña lganderako onen okellean samur, bigun-bigun egongo da. Zuek zuen etxean lau zarie, andra-gizon eta seme-alaba bi, gu beste lau gara, ni mutil zaar ganorabakoa ta nire guztiz zentzundun arreba Patxike ta bere seme-alaba biaz, gu be lau gara. Aaa!... Txomin eta bere andrea. Zure lagun Txomiñek be gai, auzi onetan zer ikusia, ta ez gitxi, ba dau, ez?...

Bai, bikote ori be, Txomin eta bere andrea espakisun onetan aitzu eziñeko kideak dira, Mikelek bere izketa Batxiri eten-azo eutsan.

Ondo sukalduturik, Batxik jarraitu, saltzan erbi onek amar gizaki, naizta guztiz jatunak izan betetzeko beste okela ba dauka... Arraio arraioa! orrez ganera mutil zaar onek, bearrezkoa ba da, oilo bat edo beste bazkari orretarako, Inazion urtebetetzea ospatzeko, emongo dau, Batxik abots poz-alaiaz ifioan.

Ez, ez, oilorik ez, egaztia neuk ipiñiko dot, Mikelek erantzun eutsan. Zugaz Batxi ados nago. Zeuk diraustazun bezela egingo dogu. Datorren Igandean, Jaungoikoak gura ba dau, gurean izango dan bazkarian amar maikide izango gara, ta gure sendien adiskidetasuna sendotuz, egun on bat emongo dogu.

Ara, Iturgane basetxerantz nor doan, Batxik bertarantz begiratu, iñoan. Ori be gaur, zure antzera Mikel, solora kakotan joateko baño idi-gurdia gidaritu, alper-langintzarako obeto dago. Bere idi-buzterriaz basorantz azpigarri billa joiana Txomin zan.

Batxi, nire barnea kezkatzen dauan artxu bat dot, eta zuk soilki nire kezka au azaldu daikezu.

Zelan arraiio Batxi, erbia eskuratu zenduan ba? Erbia zelan arrapau zenduan esan eistazu, Batxi. Erbia gure txakurren aurretik aztrapaladaka ariñekeitaz ibiliz guztiz nekaturik zanean, makillakada bat emon zeutzan?

Ez ba... ni neure etxe aurrean daukadan ortutxu baten lurra fozatzen, bei-korotz, sats apur bateaz ongarritzen, lurra ongarritzen nebiltzan, eta ara non, beko lantzarretik gorantz astrapaladaka, ito-bearrean erbitzar sekulakoa, non ikusten dodan. Erbia urreratu zanean maitekiro esan neutsan.

Zatoz erbitxu, erdu nigana nik zainduko zaitut, ez dautsut ezer txarrik egingo.



*Andertxu bere txakur eta eizta-iskilluaz.*



Bai, bai, oraintxe noakizu... Ba dakit zetarako gura nozun... Bardin da, zuk ilten ez ba nozu, beste batek ilgo neu ta, erbiak erantzun eustan. Gure azkena, erbien azkena, geienetan beintzat, kazuelatxuan izaten da.

Egia da, ze xede, zori ain negargarria zuek dozuena... Begira or dozu... erbitxu ori arrapatzea guztiz erreza izan jatan...

Zure begien aurrean dagon erbitzar ori nire loba Manugaz bialduko dautsut, zuenera bialduko dot, gaur gabean erbikia zuen etxean izango dozue, agur. Eta auzokide biak alkaragurtuz banandu ziran.

Gertaera, egikisun, ongarrri bat egiten danean aitzindariak bere barnean sentitzen dauan poz-alaitasunez, adiskide biak agurtu ziran.

Aaaaii jauna! Gogo on, borondate onez jarduntzen danean arazoak ze errez zuzentzen diran!

Inazio mutikoaren urtebetetzean, bazkarian, amar maikide izan ziran, lau sendi aditasunez alkarturik, aditasun zintzo batek alkarturik, egun ongarrri bat poz-alaitasunean emon eben.

Txomin eta Mikel erbi ta basurdetan ez eze eiztari bezela oillogor, basaate, mior, uso, sosobiragarro, lumadun guztietan be, trebeak ziran.



*Andertxu bas-aate egazia il naian bere iskilluaz danbadaka.*

Txomin eta Mikelek esaten ebenetik, gai onen buruz eiztariak apur bat guzurtiak ba dira baiña, euren etxe inguruetan, Errekatsu ta Iturriotz basetxe inguruetan, aize apur batek astintzen ebanean, eiza-egazti lumakaz itsututa ibili eziñeko edoi-lumaduna sortzen ei zan.

Urtziñetarrak olako edo antzeko jardunkisun, jolaspideak, euren alkar izketatan pozik, atsegintsu erabilten ebezan. Jaiotza, ezkontza edo eriotza beste barririk jazoten ez zan erri aretan, albiste jolaspide bat euren alkar izketatan erabilteko aukera izaten ebanean, eta albiste ori poz-alaiago izan eiten aundiagoturik azaltzen eben.

Ara emen beste aldi baten Urtziñen zer jazo zan.

Andrestxuk, erriko errementariaren semeak, Txomin eta Mikelen auzokide ta adiskidea be bai, antziña igeltse-obi izan zan lekuan, tokian, egoan osin aundi ta sakon urtsuan, goigoi edoi artean bas-aate aldia bat biraka, bere ustez osiñera jaitzitzeko asmuz, ikusirik, Txomifinera, Iturriotz basetxera urreratuta, Txomiñegaz topatu zan, eta iñotsan.

Txomin... Txomin..., Andrestxu ariñeketan, astrapaladaka, urduri, larri joian, orren ondorioz ia barbarik be ezin eban egin, zure billa nator.

Ara Txomin..., Igeltserako osiñean, goi-goi guztiz goi, edoi artean nozean beinka agerturik, bas-aate aldra bat dabil... Nire eretxiz osiñera jaitzitzeko asmua dabela uste dot. Nai ba dozu, ia egaztitariko bat ilten ba dogu, biok joango gara. Ni eiztaritzan eldu-barria naz, eiztaritzan zu añako trebea ez naz, baiña zugaz joatea, bas-aate orrein atsean zugaz joatea, guztako litzaket.

Ederto gazte, baiña eiza-izkillua ez eze, egazti orreitariko anbat iltea nai ba dozu, zerbait berogarri be eroan bearko dozu. Goizaro guztiz otza da. Bart lei polit bat egin dau, gaur goizean inguruetakoa lurraldeak guztiz zurituta agertu dira. Ni neu ba noa neure etxera, ia Agustiñek akeit bero-bero apur bat bonbilla baten ipinten daustan, ipiñi daustan. Beingoan Errementariñean naz, agur.

Ander sutegikoa, erriko errementariaren semea, mutil gazte jatorra, langile zintzo, deduzkoa zan. Soldadiskatik etorri-barria ta eiztan iñoiz ibili, saiatu bakoa. Gudarostea amaitu ebanean, etxeratu zanean, bere aita-amak, mutila eizta zalea zan ezkeroko eiza-iskilua erosi eutsoen.

Mutil gaztea ez egoan pozik ba, ta egun orretan ondiño gelago, pozago. Txomin erriko eiztari trebeenatariko bat izanik, beragaz basaate orrein atsean joateko aukera ebalako, Andertxun poz-atsegiañ azaldu eziñekoa zan. Orrez ganera, uste-gabe, alabearrean, aldrako bas-aatetariko bat ilten ba eban...!

Andertxuk be bere etxera joanda bonbilla bat edariaz gertatu eban, oiñeta-ko ta soiñeko egokiak ipiñi, jantzi ta Txomiñen begira geratu zan.

Andik unetxu batera Txomin Errementari basetxeko atari aurrean izan zan. Egun orretan Txomiñek, Mikel ez eban lagun. Bere betiko eizta laguna, Mikel egun aretan buztarrirako eban zekortotariko bat anker, anka batetik anker zala ikusirik, Albaitereari dei egin eutsan eta bere begira, zain, egon bear-eban.

Or doaz ba Txomin eta Andertxu, eiztari gaztea, munaperrik munape, bas-aateak ikusi ez egiezan, sasi ondorik sasi ondo izkutatuz osin orretarantz, lgeltsarako osiñerantz.

Osiñaren aldamenean aterpe abarotsu baten estaldurik, bata besteagandik bitarte apur bateaz jarri, jezarri ziran.

Bas-aatea aldra ederra zan, eta edoi artetik nozean beinka agerturik, biraka, osiñera jaitsi naian, euren etsaiak, azeriak, nondik ziran arretaz zain ebiltzan.

Bitartean Txomin eta Andertxu geldi-geldi, mugintzerik egin barik eta euren espanetara errekontxu bat be eroan barik, bas-aateak ikusi ez egiezan ixil-ixilik egozan.

Agaztiak mugitze txikiena zein errekin-ke ezereza asao, guztiz asaotik nabaritzeko almena dabe. Orregaitik gure eiztariak kokatu ziran tokian berba ez aztul bat be egin barik egon bearko eben.

Luzaro arreta aundiz bas-aate aldra eder a osiñerantz noiz jaitsiko zan begira zain egonda, ta goiz aretako ia jasan eziñeko otza apur bat leundu, beratzeko naian, Txomin eta Andertxuk nozean-beinka eiza-zorrotxuan eroen berogarriari, akeitari, zurrutatatxu bat egiten eutsoen.

Akeit-zurrutadak geroago bitarte laburragoan izaten ziran, eta azkenean bonbillako edaria eiztariei amaitu jaken.

Olako baten Andertxuk bere lagunari ešan eutsan.

Txomin, nik bonbillan ekarri dodan akeita ia amaitu dot, zurrutatatzu bat baño ez jat geratzen. Bas-aate orreik osin onetara jaitsiteko asmurik ez ba dabe, laster etxerantz joan bearko dogu. Akeita amaitu ezkeru, eguraldi otz onegaz emen ezingo gara geiago egon.

Bai, alan da Andertxu, baiña itxaron apur bat, aurak be, bas-aateak be, gu emen otza jasan eziñik gagozan bezela, an goietan otza ta gosea euren biro utsetan izango dabe, ta jaitsitera bearturik izango dira, ta laster...

Alan jazo zan, Txomiñek iñoan lez jazo zan, arik unetxu batsuk geroago bas-aatetariko bat, orra non abiada itzalean, aldratik aldendurik eistariak egozan osiñerantz, non jaitsiten dan. Zuzen be Andertxu jarrita egoan tokirantz etorren. Txomiñek egaztia beingoan ikusi eban eta Andertxuri oiuka iñotsan.

Andertxu, arreta aundiz egon zaitez, bas-aatea artez-arte zuzagozan aldearantz doa ta...

Andertxuk be egazia ikusi eban, beragantz etorrela nabaritu ebanean, beraganantz urreratzen etorralla konturatu zanean, eskuman eukan izkilua, surbaldean ipiñi, jarri ta danbada bat egin eutsan. Danbada bakarra naiko izan zan; osin baztarrean egazia ilda eskuratu ebanean, gure eiztari gaztea pozenpozez siñistu ezifiek, Txomiñeri eroan eutsan.

Andertxu, ederto!... arritzekoa, siñez-eziña da!... Eizatzeraz joan zaran leenengo egunean; leenengo danbada bakarragaz bas-aate, egazi guztiz zailla ilteko, eskuratu dozu!... Benetan sines-eziña da, oiuka, muttila besarkaturik, Txomiñek bein eta barriro bere arritze sekulakoa adierazoz, mutilari iñotson.

Ara Txomin, ez dakit zerk arritzen zaitun orrelan, bas-aate aldra bat, ogeitamar egazi baño geiagoko aldra bateri danbada bat egin, eta bas-aate bakar bat iltea, arritzekoa dala ez dot uste, Andertxuk, bera be Txomiñen arritzeaz zurtzateturik, esan eutsan.

Ander, Ander zure bonbilla orretan ze berogarri ekarri dozu, ba?, Txomiñek mutilari diñotso.

Akeit bero-beroa Txomin, akeita... koñak tantaltxu bi edo iruaz naastatuta, Andertxuk erantzun.

Ez zan izango Ander, azunbre erdi koñak, akeit tantal bi edo iruaz naastaurik?... Ederra emon daustazu!... Ni emen akeit utsa edaten, eta zu zeure gorputza koñakagaz bero-berotzen!... Ja! Ja! Ja!... Eta eiztari biak barre-zantzoa bas-aastearen eskuratzea ospa eben.

Urtziñetarren, nekazari arrunt, apal ez-ikasien biziera, gertaera aipagarri izaten ez zan erritxu onetan, onelako jazokisun txantxegarriak uts-utsean aldatzen eban Igande ta jaiegunetan, Meza aurrean eleizpean, Mezea entzuteko asmuz bikain apaindurik, erritarrak batzen, urbiltzen ziran zortzirak eta erdie-tako elezkisun aurrean, a zelako ziriketa, txantxa ta erronka izaten zan!

Urtziñen biztanleen artean, nekazari, idazkari, zein osagile edo abadea izan, euren arremanetan ez zan ezbardintasunik. Gizaseme guztien artean talde bat, erri bat osotzen eben. Alkartasunean erria osotzen eben.

Erriko Osagille jauna, On Martiñ. Gizon adiñekoa, bere ama Errufiña alarguna, andra deduzko, garbi ta langileaz, bizi da. Sendi onek beste senide, aide urkorik ez dau. On Martiñ bera be gizon alarguna da. Angela Txatximintxe basetxeko alabeaz amar urte bizi izan zan, baiña seme-alabarik ez eben izan.

On Martiñ Osakidetzan, Osagile bezela gizon trebea da ta erritar guztiak, danak, maite dabe. Gizon deduzko ta langile au, benetan maitatzekoa da. Erri-

tarrei ta baita be erritar ez diranari be, lagun-urkoari, lagundu ta mezede egi-teko beti da gertu. Urtziñetarrak esaten dabe, eta ez errazoi gabe, bere espa-netan amai-gabe agertzen dan irribarretxua, gaixo, makal, diranantzat, osaki-rik bereziena izaten dala. Emankora, esku-zabala, erritarren edo zein eskari entzuteko, gurariaz zan.

Euskalerriko basetxe-errietan, ez dakit jolasketa, kirol bezela ta baita be bizi-bide lagun izanik, bertako biztanleak, geienak beintzat, eiztariak dira. Neguko aldi luzeetan, solorako arorik ez danean, lurra landu, azia erain landa-rak jorratu edo uzta batze lanik ez danean, nekazariak eiztariak, batzuk guztiz trebeak, biurtzen dira. Solo ta ortuetan lana ugari danean be, nekazari askok, eiztari amorrotuak diranak batez be, erbi anbaten aztarna nabaritzen be dabe, asti laburtxu bat, lanari tartetxu bat osturik, erbiaren atsean txakurragaz joa-teko, lortzen dabe.

On Martiñ be eiztaria zan, erbi-eiztaria, bere txakur zuri mota baltzaduna Pinto lagun ebala, eiza-izkillua lepoan, otarterik otarte joanez, mendiska barrenea bere txakurrak, Pintok, erbia aurretik artu ta mendi gora erbiaren atsean ordu luzeak emon ondoren, mendi tontortxu baten erbiari aurre artu ta danbada bateaz ez ba da be, bigarrenagaz erbia baten baño geiagotan ildakoa zan. Ori zan ba, erbia eiztatzea zan ba berantzat, On Martiñentzat, jolasterik atsegingarriena.

Baiña On Martiñek egun bi daroaz erbitan urten gabe. Egun bi oneitan bere etxetik urtenda, solo artetik solo arte, bere betiko irri-barretxua erdi galduta, guztiz oldozkor agertzen da.

Kosepantoni, Ixidro Legorreko, Legorre basetxeakoaren seme zaarrena, berau be Ixidrotxu, ogean gaixorik egun batzuk eroazan. Osagilleak, On Martiñek, mutila kizkaltzen eban sugarra zeren ondorio zan ez ekian, eta beraz, mutila osatzeko osakirik ezin eban agindu artzeko, mutilari emoteko.

Osagilea bere oldozketatan Iturriotz basetxe alboko soloetara eldu zan, Urrillaren erdia izanik, solotariko baten, Iturriotz basetxeako etxaguna, Txomin, azkenengo arto-indabak batzen saiatzan zan. Izan be, Negua bere ekaitz eta otzakaz agertu baño leenago, arto idabak, uzta osoa ganbaratzea, legor-legor diranean ganbaraetzea, bearrezkoa da.

Osagilea Txomiñengana urreratu zanean, bereala agurtu eban, esanez: Arrastion Txomin, zer arto-indaba uzta batzen ez?

Bai jauna, gaur eguraldi legor eta ona dogu, uzta batzerako egokiena, ta soloetan geratzen diran arto indaba apurrak ganbarara eroateko, beragaz baliotuz bearturik gara, ta berori zer? ibilalditxu bat egiten? Zelan eiza-izkillua ta txakurra ez dakars berórrek, ba?, Txomiñek erantzun eutsan.

Gaur erbitarako eguraldia ez da bat be egokia, eguraldi legorra, egoaize aize-iger onegaz nire txakur zaarkotxoa erbiaren atsean ibilteko, ez dago. Gaur ez biar erbirik ez dot jango, Osagileak erantzun eutsan. Gaur gabea porrusaldea jan bearko dot.

Baiña ori zelan. Etxean, berorren etxean erbikirik ez daukalako ez da izango, jauna, Txomiñek txantxa naian iñotsan.

Ez dirautsut ba, nire etxean erbiki usaiñik be ez dagola, Txomin?, Osagileak jarraitu eban.

Eta nik atso illuntzean bialdu neutsona, jauna?, diñotso Txomiñek.

Zer? Zuk nire etxera atso erbi bat bialdu? Ez nekian ezer, Osagileak bere aurpegia apur bat poztuz, esan eutsan. Nire amak ez daust ezertxu be esan... Andra maite errukigarria be apur bat zaarkotxotuten doa ta...

Ba nekian Txomin, biotz ondun gizona zarala. Gaur gabea afaltzen gurea etorri nai ba dozu, etorri zaitex. Erbia bion artean jango dogu, On Martiñek, bere egikisun onagaitik eskertuz, diñotso.

Pozik be pozik erbia jaten beroreri lagunduko neuskio, baiña lurralde edatsuak daukazan etxagun batek, sasoi onetan uzta batzen, mukurrak sute, sukalderako ta azpigarria negurakio aterpean moltsotu nai ba dau, unetxu bat be, aro ona, eguraldi legorra danean, ez dau galdu bear. Mila esker On Martin, beste egun baten izango da, Txomiñen erantzuna.

Urrengoa neuk, urrengo erbia neuk Txomin bialduko dautsut, zure etxera urrengo erbia neuk bialduko dautsut, On Martiñek iñotsan.

On Martiñ poz, alai bere etxerantz abiatu zan. Bere itxura oldozkorra baztertuta, erbikia jateko nai, gurari, bizi-bizia lortu jakon.

Jateko ordua eldu zanean, ama semeak mai alboan aurrez aurrez beti lez jazarri ziran, eta On Martiñek bere amari esan eutsan.

Ama, gaur afari ona, ez?.

Beti lez seme, beti lez, amak maitekiro erantzun eutsan.

Baiña On Martiñek gaba aretan erbikirik ez eban jan, porrusaldea, ori bai gozo-gozoa saietz-azur zati aundi bateaz. Naizta amak erbikitaz ezer ez esan, On Martiñ ez zan larritu. Erbia aitatzea nire amari aitzu egingo jakon, apur bat zaartxua ba da ta..., ziur, biarko itxiko eban, erbia biar bazkaltzeko itxiko eban, bai, nire ama maiteak biar bazkaltzeko erbikia sukaldeko dauts, bere baitan On Martiñek iñoan.

Biramonean On Martin goiztar jagi zan, ogetik goiztar jagi zan. Gaixoei eguneroko ikustaldiak bizkor egin eutsoezan, Eguerdia baño leenago bere lana On Martiñek amaitu eban, eta bazkaltzeko ordua eldu zanean, gertu egoan.

Amak, mai ganean oial margo zuri-gorriduna edaturik, bere ganean jateko erabilten diran tresna guztiak ezarrita, bere gelan semeari dei makal bat egin eutsan, eta an ziran alkarren aurrean, bazkaltzeko gertu.

Amá, dirautso On Martiñek bere amari, gaur bazkari ona, ez?

Iñoiz txarrik ipiñi dautsut, ala? maitasunezko irribarretxu bat egiten eutsola amak esan eban.

Ez, ba, baiña Iturriotz basetxeko etxagunak, Txomiñek, erbi bat bialdu dauskun ezker... On Martiñek amari iñotsan.

Txominek gurera erbi bat bialdu?... Ez da goraintzirik be... Nik emendik erbi ez Txomiñik be, ez dot ikusi. Amak diñotso.

Ez da izango? Berak, Txomiñek, oitura daunatariko txantxa bat da... Arlote, txantxelari a!... On Martiñek samintasunez bere amari dirautso. Baiña niri adarra jo?...

Ludi onetan eroapena bearrezko danatariko zeintasun bat dala ta, gure On Martiñ bazkalondokoa egiten ogeratu zan.

Arik iru edo lau egun barru, On Martiñ bere zeregifíean gaixo bat ikustera deiturik, Iturriotz basetxe albotik igarotean, basetxe alboko solo baten, Txomin txarrientzat sarankada bat txarri-arbi garbitzen ebilela ikusirik beregana urreratuta agurtu eban, esanez.

Egunon, Txomin, zer, gortako abereentzat janaria billatzen?

Berorrentzat be onak izan daitezela, On Martiñ. Bai emen nabil ia txarriak ixiltzen ba doaz. Or dagoz gortan girrintzeka ta... Berori zer, lanean ala ikustaldi bat egiten, dabil? Txomiñek esan eutsan. Zer, leengo egunean erbia gozo egon zan?

Txomin Txomin!... Ondiño be zirikatzen, txantxetan zirikatzen!, diñotso On Martiñek.

Zer ba? Erbia berorrenera ez zan eldu, ala? Erbi-ar lodi, gizen ederra bialdu ba neutson!...

Txomiñek iñotsan.

Erbia bialdu! zuk erbia gurera bialdu! Iñoiz bialdu bakoa ez zara, ez, ezin naike ukatu, bein baño geiagotan bialdukua zara, baiña leengo egunean ez, Osagileak jarraitu eban.

Ortxe beko soloko lazto legor artean geratzen ziran indaba apurrak batzen nebiltzan, uste-gabe neure anka artetik erbi eder-eder bat, lau-bost kilo astun inguruko erbi eder bat, tximista bera baño be abiada aundiagoan, orra non urteten dauan... Erbia benetan ederra, gizentsua, beragan uts bakar bat nabaritu neban, atzeko ezkerreko ankatik apur bat anker zala, eretxi jatan. Naizta

erbiak nire ankapetik leiatsu urten berorren etxera joan daitela esateko astia izan neban.

Erbixua, zoaz On Martiñenera, On Martiñen etxera zoaz, erbitxu maitea. Egia esan, nire agindua, berorren etxerantz erbia artez-arte joiala ikusirik, osoz betzen saiaturen zala, uste neban. Baiña maltzur arek atzipetu nau, Txomiñek iñoan.

Txomin Txomin!... Zu beti lez txantxelari. Nok izan leikean zure aldarte, umore ona! Txantxeta au zugandik etorria danez, ez dot txartzat artzen, naizta areñegu iluntzean, nire amak erbikirik afaltzeko ez eukala esan eustanean, apur bat asarratu nintzan..., baiña nire asarraldia, zirikatzea, norgandik etorren jakiñik... barre zantzo bateaz, eten zan.

Egun gitxi barru, Osagille jauna, erbi eder-eder, gizen bat bazkaltzeko euki-ko dau. Neuk bialduko dautsut, baiña oraingoan lau-ankan ez, neure andrea mezularia izango da. Bide batez nire andreaki ondo etorriko leikio, berorrek bere bularra apur bat arakatzea, ezpalditxuan kezkatu dabil ta.

Parkatu jauna, Txomiñek jarraitu eban, nire txantxeta ori. Nire izakera onek eragiten daustazan gertaeratariko bat izan da ta... Nire aldarte ona, diraut berorrek... Olan ez balitz, emen gabiltz gau eta egun nire andre ta biok lanean auspez, gelditu barik... eta sendia elikatzeke ostaz ostaz lortzen dogu... Nire aldarte, umore unatzaz... zer esan daiteke... Zer izango litzake olako txantxa aldia, bizitza zer izango litzake, olako txantxa-aldi batzuk izango ez balitzakez!

Ondasun eta jakitunean txiroa nasan aifiako, aldarte on, umore on, alaitasun eta baikortasunean eukitsu, guztiz onduna naz. Zio onetzaz nire andreak beti esaten daust.

Gizona, zuk bonbilarik erdi-utsik ez dozu iñoiz ikusten.

Andratxua, erantzuten dautsat, bonbila erdi-uts batetik egiten dan zurrutadea makala izaten da, bertako edaria amaitzeko bildurrez, zurrutada makala egiten da, ostera bonbila erdi-bete batetik egindako zurrutadea, ze gozo atse-gingarria izaten dan!

Txomin, zirikatze orren ordainpide bezela ez dozu zergaitik erbikia nire etxera bialdu bearzenik. Bein baño geiagotan gurean, nire etxean, zuk bialdu-tako erbikia jan da. Neu izango naz Txomin, urrengo erbia zure etxera bialdu-ko dauana ta zure sendia, zure andra ta seme-alabak lagun dirala, maikidea izatea nai nuke...

Bai, bai, zelan ez, Txomiñek On Martiñen izketa eten eban, Iturriotz base-txeko ateak idegita, zabal-zabalik, berorrentzat beti dagoz. Bai niretzat eta



baita be nire andra ta seme-alabarentzat, bazkari orretan berori gugaz izatea, gureztat eskergarria izango litzake, Txomiñek pozez pozez iñotsan.

Eskerrik asko Txomin, bake ba da bazkari ori egingo dogu, ta leen izketa etenda, gure alkar-izketa etenda aboan geratu jatan berbaldia oraintxe dirautsut.

Zure bizitzaz, zure ta zure sendi bizitza neketsu, gogor, zoritxarrekoatzaz, ni ez nago ados, zure eritxia gai orretan ez da zuzena. Ez eizu ainbeste erosta izan. Zoriontsua izateko, Txomin, zio ugari dozu. Etxalde, ortu, solo, lantzar, barruti, baso edatsudunen jabe zara. Andra ta seme-alaba bi maite-maite zai-tuenak dozuz, erritar eta auzokide guztien, danan, adiskidetasuna, bene-bene-tako aditasuna dozula ba dakizu, beraz goibeltasun, izturarako ze errazoi dozu, ba? Zoriontsu zara Txomin, zoriontsu, Jaungoikoak ez zaizala zigortu.

Alkar adiokatasunez agurtuz, Txomin eta On Martiñ euren etxeetarantz, abiatu ziran.

Arik amabost bat egunera, On Martiñ, Osagileak bere gaixo-ikustaldiak amaitu ebazanean, goiz-erdi inguruan, arteroko egunean ikusi eban erbi mando bat, Utxuki.basetxe atsetik ibarrerantz jaitsiten ikusi eban erbi-mandoa arrapau naian, eiza-izkilua sorburuan dindilizka, zorrotxu baten bere amak sartu eutsazan lukainka ta giar zati bat erreta, ta eiza-txakurra, erbi-txakurra lagun ebazala, or doa umetxu bat oski barriakaz baño pozago gure Osagilea.

Aldi aretan On Martiñen buruan, txakur, Kiko bere erbi-txarruraren ausi, zaunkada batek erbi-aztarna txakurrak nabaritu ebala adierazoz, txakurraren zaunkadak noiz entzungo zain egoan, beste adurarik ez eban.

Mikeltxu, zortzi urte inguruko mutikoa elgorrik jota gaixorik zanak, bere gogoketatan, Osagillearen gogoketatan ez eban lekurik, ez da Andresa Umono basetxeko atsotxua azurretatik, unore, gaixotuta zana be, bere oldozketatetik baztertu eban. On Martiñek txakurra, erbia, erbi-aztarna ta txakurraren ausi zaunkadatan uts-utsean pentzaten eban.

Baiña aitortu bear dautsut irakurle, gertaerak argi azaldu bear dira ta, Mikel ta Andresa atsotxua, erri aretako gaixo bakarrak zirala, ta euren gaixoak ez zirala aduratzekoak, kezkatzekoak. Bai, On Martiñ Osagille trebe ta giza-alde-zko, biotz-bera izanik, gaixoak guztiz egoki zaindu, babesten ebazan. Osakide-tzan bere jokabidea akats-gabekoa, bere bizitzan gizontsu beti jokatu eban.

On Martiñ bere txakurra aurretik ebala, eleiz alboko, erriko eleiz aldamene-ko zugaiztia zearkatuz, ailorbe ta bas-arbi orlegi loratsuakaz agertzen ziran solo ta inguruetakoa lar, landa ta sastraka guztiak bein eta barriro erbi-txakur-raz arakaturik, erbi-aztarnarik ez ebela nabaritzen ikusita, Anton Porrún base-txerantz, eiztari ta txakurra abiatu ziran.

Mendiska magaletik Anton Porrún basetxe albotik igotean sasi-arte baten, otabar, elorrantz eta sasiak osotzen eben abarotxuan Kikok ausi, zaunkada epel batzuk egin ebazan. Txakurra abaro inguruan biraka ta biraka geroago ta leiatsuago, azkenean txakurraren zaunkada urduriak, erbi-aztarna bero-bero zala, adierazoten eben.

Lau ordu luze ziran, On Martiñ bere etxetik txakurra lagun ebala, eiz-izkilua eskuan ta jaki-zorrotxua sorbaldatik dindilizka, urtena dala. On Martiñ goizean bere etxetik erdibarau urten eta naizta urdailla karraskadaka izan, bere jaki-zorroan eroan lukainka ta giarra zatia jateko astirik ez eban izan, txakurraren, Kiko txakurraren, mugimendu guztien zain, bein banaka txakurraren zaunkadak zorion-itxaropena, erbia lortzeko itxaropena, makaldu ta bizkorturik, gose zala, bere urdailla kezkatu zala, ez zan konturatzen.

Alako baten txakurraren zaunkadak guztiz bizkorturik, Martin mendi magalean egoan tontortxu batera igonda, sasi-moltso txu baten estaldurik, eiza-izkilua, eskopetea, gertutu, ixil-ixilik, mugimendurik egin gabe, ia ia arnasea be artu barik, txakurra ebilen lekurantz adi-adi egoala, munape batetik mendiska gora, On Martiñ egoan toki ber-berantz, erbia non datorren.

Aukera sekulakoa On Martiñentzat. Erbia eiztaria egoan sasi-moltso beratan estaltzeko asmua eban, ziur, ba da artez-arte bere ondamera, bere erio-tza, izango zan tokirantz joian, erbia joian. Gizakien bizia zaindu, babestzeko arduraduna dan Osagileak, izkilu zital baten bitartez, biziaren zaindaria ara zelán eriotzaile biurtzen dan. Erbia beragandik guztiz ur ikusi ebanean, a zan On Martiñen poza! Erbia leenengo danbadeaz ankaz gora ilda izan zan. Osagilea guztiz pozik, bere gaixotariko bat eriotzaren erpe zitaletatik gaizkatu ba eban be, ez zan izango poz, atsegintsuago.

Bere izkutu-tokitik urtenda On Martiñ, mendiska beratan, guztiz ur, Erreka-txuko Mikelek sugarrirako gertu ebazan areitz enborretariko baten ganea jezarrita, apur bat nasaitu zan. Txakurra bere agoan erbia eroala eiztariagana urretaturik, bereala eiztariari erbia emonda bere alboan etzun zan.

Jokaera sekulako izan dozu Kiko, maitekiroz laztanduz, txakurraren burua ta lepo ganetik eskua kutuntasunez ebilela, Osagileak, eiztaria une onetan, iñotsan.

Erbitzar au arrapatzea, Kiko, ez da izan bat be erreza, baiña nekaldiak merezi izan dau, benetan lodi, gizona da. A zelako bazkaria egingo dogun! Erbiz bete bete egingo gara!

Orain ementxe berton, goizean nire amak zorrotxu onetan ipiñi daustan janaria bion artean jango dogu, bion artean bananduko dogu. Ni gose naz eta zu be bardin zamar izango zara.

Eiztariak zorrotxutik lukainka eder-eder bat eta giar zati aundiago bat atera, ta jaki biak zati bitan txikerturik, otamena banandu eban. Beingo baten bai eiztariak eta baita be txakurrak euren otamena jan eben, jan ez, iruntsi. Eiztariak zorrotik satoa, ardao-satoa, atera eta gozoro zurrutadatxu bat egin eban.

Ardaorik ez, zuretzat, Kiko, ardaorik ez dago, zuok txakurrok ardonazkatzarie ta, eiztariak txakurrari iñotsan. Zuk or beko iturri ur ozkirri gardendun orretan zure egarria asetu al izango dozu.

Baiña ilundu baño leenago etxeratu nai ba dogu, bertarantz bereala abiatzea bearrezkoa da, eiztariak jarraitu eban.

Etxerantz abiatu ziranean asmu au eban, eiztariak ainbat leen etxeratzeko asmuia izan eban. Bere izkilua, eskopetea, sorbaldean eta ezkerreko eskuan erbia erdi dandarrez mendiska bera, eiztaria ta txakurra joiazan. Areiztia zearkatuz, mendiska barrenean aurkitzen zan iturritxuan, Kikok sekulako ur zurrutadak egin ebazan, jan ebazan lukainka ta giar zatia ondo buzti al izan eban. Euren urdailak apur bat atxipeturik, jakia asetzeko aiñako ez zan izan eta, gure bikote, eiztari ta txakurra, nasai-nasai joiazan.

On Martiñek, bere leenengo asmakisuna Txomin eta Mikelen etxe albotik joan eta eurari bere eizketa garai-ikurra erakutsi, baiña obeto oldoztuz eta bere etxera ilundu baño leenago eldu naian labor-bide bat artzea erabagi eban.

Baiña erbitzar eder bat eiztaratu, ta erritar batek be ikusi barik, iñori erakutsi gabe, etxeratu?... Ez da oiturazkoa..., erriko-tabernatik biratxu bat egin barik etxeratu?... Erritarren aurrean, eiztari trebe, on bat bezela, zelan agertuko zan ba?...

On Martiñ zio onetan eiztaria zan, eta errietako tabernatxuak eiztarientzat erakusketatoki bikaiñak dira. Eiztari bat, eizaketa bat egin ondoren, bere txakurra lagun ebala eiza gabe erriko-tabernara sartzea, bertan ikustea, ez da erreza.

On Martiñ, oraingoan Martin eiztari bat soilki zan, erbitzar eder-eder bat bere txakur Kikok aztarnatu ta danbada bateaz il-barria zan eiztari bat zan, eta zelan ez bere eiztari-trebetasun ospe ona errian edatu daiten, ildako erbitzarra lepon eskegita agirian, ondo be ondo agirian, izaketa aretan kide izan zan bere txakurragaz erriko tabernatik bira, bueltatxu bat egin?

Azkenean bere etxeratzeko naia baño bere eiza-arrokeria sendoagoa izan zan. On Martiñek egun aretan erbiaz, ilda eroan erbiagaz, bere txakurra lagun, erriko tabernara joanda, bere erritarren aurrean eiztaritzan eban trebetasuna agertzen eban, erritarrei agertzen eutsen. Au lorturik eta tabernakidei kuarti-llo txu bat ardao opatu, gure eiztaria arro-putz eta nasai, etxerantz joateko gertu egoan.

Alan egin eban, bere txakur Kiko atsetik jarraitzen eutsala, oinkada bizko-  
rrez, bere etxerako bidea artu eban.

Argia ta illuntasunak betirik daberen borrokan, une aretan garaile izango zan  
illuntasun, gaba, ur egoan. Eguzkiaren azken izpien argitasuna, egun aretako  
eguzkiaren azken izpien argitasuna makaltzen agertzen zan ezker, eiztari ta  
txakurrak gaba sartu baño leenago, egunez, etxeratu nai ba eben, guztiz azkar  
ibiltzen bearturik ziran.

On Martiñ bere txakurra aurretik zala, tabernatik etxerantz abiatu zanean,  
eleizako kanpodorreko ordutegiak arrasti, arratsaldeko seirak jo ebazan. Ondi-  
ño ogei bat minutoko bidea etxeratzeko gertatzen jakon, beraz egun argitan  
bere ama agurtuko eban.

Eiztaritzan izan eban kausitze dala ta, ez joian On Martiñ poz-alai, arropuz  
bere etxerantz! Berak izan eban kausitze onak, egun orretako kausitze onak  
eragiten eutsan poz-alaitasunaren ganera, bere amak erbitzar a ikustean izan-  
go eban atsegiña gogoratuz, On Martiñ pozaren pozez bere matrail gorriska  
marduletatik negar-malko dariola joian.

On Martiñen etxea abadenagandik guztiz ur egoan, bere auzokiderik urbi-  
lena ta beraz adiskide zintzoak ziran. Abade jauna ta On Martiñen etxeak, eleiz  
aurrean, bata besteagandik guztiz urbil aurkitzen dira.

Gure eiztaria eleiz ingurura eldutean, abade jauna egun aretako eleiskizun  
eta otoitzak egin ondoren, eleizpean bere etxerantz joateko gertu egoan. On  
Martiñ erbitzarra erdi-dandarrez eroala ta bere txakurra lagun ebala agerturik,  
abade jauna onelan agurtu eban.

Gabon On Serafin, gaurko lanak amaitu dira ez?

Bai, ba, gabon, ondiño guztiz ilunduta ez da baiña, zure gaurko lanak be amai-  
tu ziran, ez? Baiña ze piztitzar dakarzu or ba?, On Serafinek erantzun eutsan.

Gaur goiz-erdi inguruan, nire gaixoak asti apur bat azke itxi, utxi, dausten  
ezker, Kiko nire erbi-txakurragaz erbitan urten dot. Txakurrak erbiaren aztar-  
na Ganbaitz mendiskara eldu orduko lortu ta sasi-arte batetik atera dau, baiña  
ez uste izango gero bera iltea ain erreza izan jatala. Onak, erbiak batxilero ikas-  
ketak baño be geiago egindakoa izan bear dau, asko be asko ekian. Baiña,  
demontrez! bere ikasketa guztia ez dira izan naiko nire txakurra atzipetzeko,  
bere jakitun guztia ez da izan gauza nire txakurrari adarra joteko. Nire txaku-  
rra bere atsean ibilita, luzaro ibilita, azkenean nekatu-azo dau, gero neuk dan-  
bada bateaz ankaz-gora ilda bota dot, On Martiñek iñotsan.

Erbia benetan da ederra, artxo lodikote batek baño be okela geiago dauka.  
Errufiñak aste-bete osorako erbikia ornitu dau, On Serafiñek jarraitu.

Ez dakit ba.... ez dakit ba..., On Martiñek erantzun eutsan, ondiño erbiagaz zer egingo dodan ez dakit, ez da non eta nortzukaz jago dodan be.

Etixeratzeko bidalian On Martin guztiz oldozkor joian. Ama-sementzat erbitzar a, gizaki bintzat erbiki larregi eretxikion. Egun batzutako bazkal-afaria erbikiaz izan bearko ziran, eta On Martiñeri gertaera au ez jakon bat be gustatzen.

Kontuan izan bear dozu, irakurle, aldi aretan izot-gailurik ez zala saltzen.

Bere asmakisunetan zala, ilaren azkenean, Urtziñe ain maite eban erritxu polit aretara bere etorrearen amabostgarren urtebetetzea zala, gogoratu eban. On Martiñek erri ta erritarrak asko maite ebazan, bera be erritarrekandik maitatua, beragan itzaltasuna osoa, zintzoa, errikideak eben.

On Martin Urtziñera erritaratzearen urtebetetzea jai andi bateaz ospatzeko aukera obeagorik amesetan be ez.

Etxeko atarian itxaroten, begira egoan Errufiña bere ama agurtuz, biak alkar besarkaturik etxe-barneratu ziran.

Non eta zelan erbitzar eder au il dozu, seme?, amak esan eutsan eta erbia lepoan ikuturik jarraitu, benetan dago lodi, gizen erbitzar au!

Ganbaitz mendian bere atsean iru ordu luze Kiko ta biok ibili ta gero, azperturek etxeratzeko gertu gengozanean, ara non sasi-arte batetik erbiak urtetzean dauan, eta danbada bateaz, danbada uts bateaz, piztia eder au ilda anka z gora jarritzen dodan, semeak amari erbi-eizatzea azaldu eutsan.

Onegaz, erbikiaz, egun batzutarako janaria seme, ba daukagu, amak maitekiro esanez, jarraitu eban. Datorren Igandean saltzan eta erreta gozo-gozo, bikain janarituko dot.

Ez dakit ama ba,... ez dakit... Datorren Iganderako beste egin-nai, asmu batzuk be ba dodaz eta..., semeak erantzun.

Aaaa! zeuk nai dozuna seme, zeuk nai dozuna, irribarretxu bat lagun ebala, amak erantzun eutsan.

Afal ordua zan, baiña On Martiñek guztiz nekatuta zan lez, afaltzeko gogorik ez eban. Ontzi bete esne ozkirri edan eta bereala ogeratu.

Biramonean, egunero egiten eban lez, On Martin goiztar jagirik, bere lenengo lan, erriko gaixoak ikustera joateko, gertu egoan. Osakidetza lanerako bear ebazan tresnakaz zan esku-narrutxua besopean ebala, etxetik urten baño lenago bere amari esan eutsan.

Ama, gaur bazkaltzera apur bat belu, berandutxu elduko naz. Goikoetxeko Joxe Migelen andrea aur-barri baten begira da, ta beragaz ziurki, luzarotxu egon bearko dot. Aaa! aitzu baño leenago, erbia, erbikia, zeuk dakizun lez,

perejil eta berakatz apur bateaz ipiñi eizu. Datorren Igandean auzokide batzuk lagun doguzala, bazkari on bat egin daigun. Agur.

On Martiñ Goikoetxera joan baño lenago, ta Txomin eta Mikelengaz alkar-  
rizketa labur bat egiñik, eurari bere naia, Igandeko bazkaritzaz ze asmatzen  
eban adierazoz, gero andik Batxi mutil-zaarraren arrebeaz, Pantxike Bekoetxe-  
ko etxagunagaz egoteko, bertarantz abiatu zan.

Osagilea Bekoetxera eldu zanean, Pantxike bere ateko atarian artaburu  
batzuk garantzen saiatzen zan. Oilotokiko egaztien gozaldia gertatzen, eta  
alkar agurtu ondoren, On Martiñek esan eutsan.

Ara Pantxike, mezede bat eskatzen natorkizu. Datorren Asteartean ama-  
bost urte beteko dira, ain maite dodan erritxu polit onetara eldu nintzala. Nire-  
tzat, erritarrentzat ez dakit izango ba da, ain oroigarri dan egun ori, berari  
dagokion bezela ospatzea da.

Datorren Igandean nire etxean berrogei bat maikidentzat, danak erritarrak,  
bazkari eder eder bat, leenago Meza nagusia entzun ondoren, egitea asmau  
dot, Orretarako zure laguntza bear-bearrezkoa jat, eta baita be zure seme  
Manu gazteenarena be. Jakiña, zu maikidetariko bat izango zara, baiña zu ez  
eze zure seme-alabak biak eta Batxi zure nebea.

Asmatua dodazan maikidei dei egiteko, gaur arrastian zure sema Manu  
nire etxera etorri daitela, eskatzen dautsut. Datorren Igandean zu nire amaren  
laguntzaille izango zara. Sutean, sukaldean, janariak gertatu ta gainerako lane-  
tarako nire amaren laguntzailletariko bat izango zara.

Pantxiken aurpegi matrail gorritzka goibel, ituna, On Martiñen eskaria  
entzutean, alaitu, bizkorturik, erantzun eutsan.

Bai On Martiñ, zelan ez, guztiz gogotsu joango nako, datorren Igandean  
berorreanean izango naz, ta mila esker ni gogoan izan naualako, pozez beterik,  
gizon ain on, biotz ondun, agurgarri arek beragan izan eban adietasunagaitik,  
Pantxikek, bein eta barriri eskerrak emonez, esan eutsan.

Bai orixe, poza siñistu eziñik, Pantxikek bere baitan iñoan. Datorren Igan-  
dean goiztar andra Errufinagaz izango naz.

Osagileak bere bidalian jarraituz, Iturriotz basetxerantz urreraturik, etxe  
goi aldamenean alkar mugatzen eben soloetan Txomin eta Mikel, bata ailur-  
bea ɛreinten eta bestea kakarraldoaz solo eder bat antolatzen, lantzen, ebiltza-  
la ikusi ebazan.

Bere erritarrakaz aurrez izan zanean, On Martiñek agurtu ebazan esanez.

Egunon Txomin eta Mikel, langile zabilte. Berorrek be onak dagizala,  
Mikelek erantzun eutsan.

Lurra, gizaseme baten antzekoa da, Mikelek jarraitu eban, sasoz eta aro onean lantzen ez ba dozuz, agortu, alpertu egiten dira, gaixotu. Lurra kutuntasunez lantzen ez ba dozu, azia sasoz eta aro onean ereiten ez ba dozu, neguan zure kanbarara janari bila bidali gitxi egin bearko dozu.

Eta berori zer?, berori be berorren lana egoki, kutuntasunez lantzen, ez? Txomiñek dirautso. Atzo egun ona, ez? Erbi eder-eder bat il ebala entzun dogu, poztuten gara.

Bai, olan da, ta zuzen be erbi orretzaz zuekaz alkar-izketa labur-labur bat, luza baterako gaur ez dot astirik eta, egin nai nuke, On Martiñek iñotsen.

Bear ba da zuek ez dozue gogoan izango, baiña datorren Asteartean amabost urte beteko dira erri maite onetara etorri nintzanetik, eta gertaera ori dala ta, datorren Igandean ospakisun bezela, jai txikitxu bat antolatzea erabagi dot, Osagileak jarraitu eban.

Ara emen nire egin-naia, datorren Iganderako egin-naia.

Leenen leenen, Igandero ospatzen dan amaikateko mezea entzungo dogu, ondoren erriko-tabernan eiza-erronka batzuk, batez be ao-beroak, jaurtitzeko aukera izango dage, ordu batak eta erdietan bazkaria.

Jaki-txartela, txartel barik, auxe da. Leenengo oilo-salda bero-beroa, gero, oiloki saltzan, oilosko batzuk eta erbia, au be saltzan, nire etxean eskegita dagon erbia, ta onkeritzat arrosa-esneaz, akeita, txola ta txokorra.

Guztitara berrogei bat maikide izango gara, beintzat ori nai nuke izatea. Zuek biok andra ta seme-alabakaz, Batxi Zumurdiko ta bere arreba Pantxike seme-alabakaz, abadea, irakasle ta idazkaria. Onein ganera beste amabost bat erriar zaartxu, andra-gizonak, gugaz maikideak izan daitezcan, aleginduko naz.

Gaur arrastian, Manu, Pantxike Bekoetxekoaren seme Manuaz, zerrenda bat egiñik, zaartxu onein zerrenda bat egiñik, datorren Igandean Meza ta bazkarira, bazkaltzera etorri daitezela eskaturik, deituko dautset.

Sutean, jakiak sukaltzeko nire amaren laguntzaille bat Pantxike izango da, sukaldari trebea ei da, sukalditzarako jaioa, Pelisa ta Errosa, zuen andra kutunak be Igandean nire etxera joaten ba dira, zeregin beratan saiatzeko goiztar joaten ba dira, eskertuko dodaz, Osagileak bere bakar izketa eten eban.

Ederto jauna, Mikelek artu eban izketa. Baiña leenago, azalpen txiki bat, jauna. Bazkari, jatordu orretan guk biok be laguntzailleak izatea nai dogu. Oilo ta oilosko bikote bana, Txomin eta biok, lumatuta guzti berorren etxera Larunbat arrastian bialiko doguz, Mikelek esan eban.

Bai, bai! gogo beroz, Txomiñek iñoan. Jauna egaztiak ilda bialduko doguz ba da... erbi anker aregaz jazo jatana barriro jazo daiten ez neuke nai.

Txomiñen txantxa onegaz Osaileak bere zintzotasuna galdu eban, eta irri-barreka Txomineri iñotsan.

Txomin Txomin! zu beti aldarte, umore txantxekorraz. Urte askotan zugan iraun dagiala.

Osagileak bera asmau eban lez guztiz atondu eban eta erritarrak poz-alai itxaroten eban, On Martiñ goraltze egun zoragarri ori.

Urtziñetarrak ain irrikatsu eban Igande ori eldu zan. Gazte, ediñeko ta zaar-txuak euren soiñeko, jazki, apaiñenakaz jasekotzen saiatzen ziran. Andra ta gizon, zaar eta gazte, egun, jai-egun berezi-berezietan uts-utsean, soilki, erabilten ebezan, jantziten ebezan jazki dotoreakaz, apaintzen ziran.

Igandero bezela amaikak lauren gitxiagotan kanpadorreko kanpaiak Meza nagusirako leenengo deadarra egin eban. Eleizatik urrun bizi ziran baserritar-rrak sasoiz eleizara sartzeko, euren etxeetatik leiatsu urten bear ebela, dei orrek adierazoten eban.

Baiña ez, Urtziñetarrak, Meza nagusia entzuteko gogoa ebanak, beintzat, eleizpean ziran. Egun orretan, eleizatik guztiz urbil ziranak, oneik beti izaten dira azkenengoak, orreik be eleizpean ziran.

Eleizpean dana zan erronka ta sarata, batzuk euren beiak esnetsuenak dirala ta, beste batzuk berrogeta-amar erraldetik gorako zekortoak zio izanik, eta geienak albokoa, bere lagun-urkoa gaiñeratu naian siñistu eziñeko, ao-beroak eragiñeko erronkak botatzen. Geienak alkar zirikatzen, txantxetan, eta danak nekazaritza lan gogorrek baztertuz, arduragabeturik izanez, eleizpean giro sekulakoa alai, atsegintsua osatzen eban.

Eleizpean Meza ordua zain egozan Urtziñetarren artean, an zan Azkorreko Jose-guzur, ziurki beranatariko anbat botazten saiatzen zala, ba da bere moltsokideak, barrezantzoka egozan.

Olako jai, txantxaldietan, Jose-guzur aintzindari berezia izanik, bera barik, bera baztertuta Urtziñen jai eta txantxa-aldirik ez zan opatzen. Umetxu jai-o-barri anbaten bataio dala, erriko neskatil edo mutil gazte bat eskondu dala ta... Jose-guzur leenengoa lerroan izaten zan.

Barre-aldietan bere izkiririmiri beresitariko bat, Erbia ta Txistularia izaten zan. Berak, Jose-guzurrek iñoanetik, bere errian gertatukoa.

Erriko jaiak, Jose-guzurren erriko jaiak, ospatzen ziran goiz baten, Meza nagusia entzun ondoren, erritarrak Alkate jauna taldeburuan zala, eleiz aurreko landatxuan, Atxurra txistularia espatadantza taldea txistu ta tanboril soiñuan dantzaten egoala, ara non, arto-solo batetik eleiz alboko arto-solo bate-



tik, erbitzar itzala astrapaladan, itsututa, eleizarako bidea non artzen dauan. Erbiak ainbeste notin, pertsona, bere aurrean ikusirik, zukuztuta, ze norabide artu jakin eziñik, artez-arte txistularia egoan lekurantz non doan. Txistulariak, bera be arrituta, ez ekian zer egin, erbia arrapatu naian, ez ekian zer egin.

Txistulariak bere urduritasunean izan eban burutasun, asmakisun, bakarra eskuetan eukan txistua erbiari jaurtitzea izan zan.

Txistularia begi-zizta bikaiñeduna ei zan, eta erbiari txistua bere, erbiaren uzku-zulotik sarturik, an doa gure erbitzarra txistu-soiñuan eleiz aurretik mendiska gora.

Uste izango dozue zuek, Jose-guzurrek jarraltzen eban, edestu dautsuedana txantxa, izkirimiri bat, guzur utsa dala, baiña ez, kondaira, barregarria bai, baiña kondaira da. Nire errian, nire osaba Fermin atabalkari lagun nebala. Irai-lleko Andra Mari jai-egunean jazo zan.

Entzuleak, Urtziñetarrak, batzuk irribarretxu bat egiñik eta beste batzuk barre-zantzo saratatsuez, Jose-guzurren txantxetak ospatzen ebezan.

Eleizpean, Urtziñetar bat geiago zala, an ebilen Lukas, Josepa Antonin seme gazteena be. Lukas, Lukastxu Urtziñetarrentzat, ogei bat urte inguruko mutil ergel, sen-gabekoa, sarritan erritarrentzat txantxa, barregarri gai izanik, jai ospakizun geienetan kide izaten zan.

Bere auzokide Patxo Azkorrekok, goiz orretan, lgande orretan, bere albora deiturik diñotso.

Lukastxu, Torrealde gure soloko muna baten, zuen baratzeko orma beste aldetik, zuen mukur lodi batzuk dagoz.

Bear ba da, zuen solotik ormea jauzkatuz, saltu bat egiñik, gure solora igaro diran batzuk ez dira izango?

Lukasen erantzuna, barre-zantzo ganorabako bat izan zan. Bardin ospatu eben eleizpean bilduta ziran erritarrak, mukur orrein kondaira azaldu egiala eskatu neutsanean, Patxok jarraitu eban.

Lukasen aitak, negurako bere etxe, beraz etxe dotorea, egurrez ondo orniduta eukiten eban. Baso ta mendi bat baiño geiagoren jabe zen ezkerro, euratatik gurdikada egurrak bere bordariak ekarten eutsoezan. Egurrak zatitu, txikertzeko arduraduna bere seme Lukas zan. Egurren artean zugaitz-enbor adaptotsuak, adartsuak, aizkolari onenak naizta aizkora zorrotz, bereziena erabilli, nekez zatitu, txikertu al izatekoak. Baiña Lukastxuk arazo au bereala zuzentzen eban, mukur txikertu eziñekoak, orma ganetik alboko solora, auren baratzaaz mugatzen eban solora, orma ganetik jaurtitzen ebazan. Lukas mutil indartsua ez zan ain lelo, sengabea.

Urtziñe eleizpeko txantxaldia amaitu zan. Eliz-dorreko kanpaiak mezarako bigarrenez deiturik, eleizpean bildu ziran Urtziñetarrak banan banan, eleizaratu ziran.

Leenen-leen, danan aurretik, On Martiñ bere amaren besotik zala, aldara aurrean eskumaldera leku berezian ezarrita egozan aulki batzutan ama-semeak jazarri ziran.

Jarraian gizonezkoak euren txartes luzeekaz, txartes baltz luzeekaz, alkon-dara edurra aiñako zuria ondo legunduta, soiñeko ta oiñetako kutuntasunez apaindukoakaz, irribarretsu, poz-alai, euren aurpegiak zorion utsaren irudi ber-bera zirala, txapela kendu, burusturik, ixil-ixilik, tokiari dagokion itxaltasunez elizaraturik, eleizako jazar-leku luzeetan, aldara aurreko leenengo jazarleku luzeetan, jarri ziran.

Andrazkoak, andra-eskonduak, euren buruko-zapi barriakaz, azpilduradun gona margo polit ezbarდიწezkoak, oiñetako barri minduten ebazanak, baiña kutuntasunez disdiratuak arrandiz agerturik, ze dotore joiazan ba!

Neskatala gazteak, matrail gorritzka gordiñak, ule-txorta luzea sekula bezela orrazturik sorbaldetan dindilizka eroezela euren edertasunak ekaiñatuz, eguzki ber-beraren edertasuna be itzalpetu aiñako polit, liluragarriak, agertzen ziran.

Umetxuak, gozoki banatzea uts-utsean, soilki, itxaroten ebenak, txartes labur eta oski barriakaz jaseko jantsita, ondiño jazki garbiakaz agertzen ziran.

Eleizpean batu ziran Urtziñetarrak, banan-banan eleiz-barneratu ziran, gizonezkoak aldare-aurreko jazarleku luzeetan eta andrazkoak atserago aulki baka-rretan, erriko nagusi ta jauntxuen salbuspen gabe, On Martiñ erriko osaillea-gaitik, osasuntsu errian iraun egian, otoitz egiteko asmuz baleunikotu ziran.

Erri osoak, Urtziñetar guztiak euren Osagilea goralduz, esker-ona, maitasun begikotasuna agertzen eutsoen.

Erritarrak, eleiz barnean jarrita eta abadea eleizkizun asiera emoteko eleiz-gelatik urtenda aldara aurrean, gertu egozan.

Meza nagusi bikaiña, idazkaria, udal-etxeko idazkaria, organu jotzaile biur-turik, sarataz, nekazariei guztatzen jaken erara, eleiz osoa bete eban. Erritar neska-mutil gazte batzuk osotzen eben abesbatz batek ederto abesturik, soiñu, organu-soiñu alai-gozoak eleiz-bazter guztiak alaiturik, entzuleak atse-gin utsa eta On Martiñeganako esker-ona, euren aurpegietan agertzen eben.

On Martiñek, berantzat ain zorionsu zan egun orretan, erritar guztiak alai, gozatu, atsegiñ-ekaiñean izatea nai eban, eta gaiñeroko erritarrentzat, bazka-rian maikide izango ez ziran erritarrentzat erriko tabernan ardo zuri, txakolifia ta gozokiak, galletak, muga-gabe banantzeko agindu eban.

Oroit-egun orretan, On Martiñek Urtziñetarrak guztiak poz-alaitasunean beragaz kide izan eitezan nai eban.

Ez zan aitzu, ez, neskatil-mutikotxuakaz, umetxuakaz. Eurentzat gozoki, karamelo ugari eskuratu al izan eben, eta arrapaladan ibilli barik. Ume bakoitzantzat otamen berezia, gozoki otamen berezia, On Martiñek banandu eban.

Egun zoragarri orretan Urtziñetarrak, aundiki ta jauntxu gabe, euren oituzko alkartasuna barriro agerturik emon eben.

Bazkaria, jaki ta edari oparotsoduna izan zan. Leenengo asiera emoteko, bazkariari asiera emoteko, oilo-salda sekulakoa, ilak eurak be jauzkadaka, saltuka eragiteko ainiakoa, gero oiloki saltzan eta erreta, jarraian erbia saltzan eta aragi-zerrada erreta, janari, jaki oneik gozotu naian arrosa-esneaz eta On Martiñen ortuko urtebete-sagarrak erreta janari oparotsu oneik txigozteko, txigozte, eio-aldi, laguntzeko, akeita ta patxaran txola adiñekoentzat, txokor bat edo beste be gizonekoentzat izanik.

Bazkal-ostea saratatsua, jan-edariak eragiten dauan bizitasunaz, maikideak, batez be gizonekoak alkar-zirikutzen, txantxetan, erronka ugari. Orain ogei urte eiztatuak izan ziran, bakoitzaren kortako bei esnetzea ta idi-bikote indartsua aiztuta izan bage.

Andra adiñekoak, euren seme-alabaren trebetasuna, bai ikasketa zein lanerako, aunditu ta goraldiaz, poz, alai agertzen ziran.

Andra-gizon, atso-aguretxuak be, euren gaztaroko gertakerak gogoratuz, atsegintsu astia emon eben.

Danak, zaar eta gazte, andra zein gizon, euren alkartasun, euren zindotasun, euren alkar-maitatze, lagun-urkoa maitatzea, Urtziñe erritarren oro bakana zan maitasun, bere aunditasunean, bere ekaiñean, agertu eben.

Jaia amaitu zan, artegasun bizi-bizian itxaroten eben egun alai, posgarria amaitzera joian.

Eleizako kanpaiak iluntzean otoitz egitera deadarka asi ziranean, Urtziñetarrak, bakoitzak bere etxerako bidea arturik eta alkar-agurtu ondoren, euren etxeetarantz abiatu ziran.

Biramona egun barri bat, jai ospetsu, alai, sekulako baten biramona, errez aitzu eziñekoa jai-egun baten urrengo eguna.

Urtziñetarrak oiturazko lanketan jarraiturik, nekazariak euren ortu ta soloak landu, abel-taldeak zaindu, jagon, umetxuak ikastetxetara, abade jauna bere eleizkisunetan eta osagilea erriko gaixo osatu naian, au da betiko eguneroko, bakoitza bere eguneroko lanean saiatuz. Baiña euren alkarrizketatan On Martin eta aurreneko jai alai, gai bakarra izanik.

Egunak, asteak eta urteak be arin joaten dira ta, Urtziñen urtean joan urte barri batzuk etorri, aldakuntz izugarriak ziran.

Irureun bat biztanletik, aldi baten irureun bat biztanle izan ebazan erritxu au, gaur egun Urtziñe ia iru mila erritarrek osotzen dabe.

Nekazaritza aldi baten euren bizi-bide bakarra zana bazterturik, orain burdiñol eta etxegite, etxekuntzatan geienak euren eguneroko ogia lortzen dabe.

Albo-erri ta urietako biztanle askok, Urtziñen etxe bakar eta etxe-goi ugari eraiki dabez, gaur egun euren egoitza izanik.

Edantegi, akeit-etxe eta jantetxe dotoreak antziñako erriko taberna zaarrak ordezkatu dabez. Kirol-toki, antzoki ta jolas-toki, kultur-etxe ederrak, errian zear agertzen dira. Euratan Urtziñetar astidun eta ugariak dira, alai, pozez, atsegintsu astia emoten dabe.

Urtziñe erritxua guztiz aldaturik, antziñako burdi-bide, bide-zior eta estartak, gaur egun arri-bide ta kale zabal-zabal naslituak bihurturik. Antziña labape ta basetxe alboetan ikusten ziran burdi zaar eta lurgintza lekaien orde, orain berebil, kotxe garezti, ederrak eta beraz ugari, agertzen dira. Urtziñe uri bat dirudi.

Bai baiña

Lurgintza lanetan be, antziñako laia, eixa, bostorrotz, tramankulu baldar kankail, astunen orde, gaur egun egun trator, sega-gailu, mota guztietako lurgintza-gailuak erabilirik, jolaste bat da lurgintza lana, ta baserritarrak antziñako izerdi, neke, lan gogorrik jasan bear izanik ez dabe...

Bai baiña...

Urtziñetarren bizieran, bizimoduan, aldakuntz izugarriak izan dira. Antziña aberats, dirudun, erriko jauntxuen seme-alabak uts-utsean, ikasketak egiten Ikastola Nagusietara, Unibersidadera, joaten ziran. Gaur egun nekazari txiro beartsuenaren seme-alabak, osagile, lege-gizon, ingeneritzan edo edozein beste bizi-bide eukeratu al dabe.

Bai baiña...

Neskatik gazteak antziña euren urten bide bakarra ezkontza edo lekai-me-etxea anbaten barneratzea bearturik ziranak, gaur egun gizonezkoak aifian Ikastetxe Nagusietan ikasketak egifnik, gero..., gero beargintza, bizi-bidean aukera bardiñakaz aurkiturik, autamen osoa dabe euren bizi-bidea artzeko.

Bai, baiña...

Pozgarria benetan urtziñetarren bizimoduan izan eben aldakuntz txalogarri au.

Baiña... guzti au lortzeko, bearrezkoa zan, aldakuntz au lortzeko bearrezkoa zan, euren urtziñetarren ekandü, oitura obengabeak baztertu ta beste oi-

tura obagarririk agertzen ez dabezenak onartzeko?... Bearrezkoa zan euren izkuntz, euskerea baztertu ta beste izkuntz bat erabiltea?... Eziñekoa da, antziña bezela idiburdia gidaritzen gure asabak, urtziñetarren asabak, erabilten eben euskera maitea, gaur egun kotxe, berebil, kotxe eder bat gidaritzen joateko, gure aurrekoak, urtziñetarren eurekoak, euren idi-buzterri gidaritzen eben izkuntz, euskera, bazterturik, beste izkuntz arrotz bat artzea?

Bai, bai, nire bakar-izketa, nire ipuiñ idaztea etenik, irakurleak iñostan. Zu errepidetik irakurleak zure kotxe dotoreaz, beraz arro joanez, beste kotxe zurea baño dotoreago batek aurreratzen ba zaitu, bere atse-aldea erakutsiten ba dautso, zelan arraiio, kotxe orren gidaria iraindu, kezkatu-azoko dozu, zelan euskeraz "tako" egoki zikiin bat bota al izango dautsazu, oiukatu al izango dautsazu?

Egia da, parkatu eistazu irakurle, ez nintzan konturatu. Gure izkuntz polit eder onetan, olako gertaeratarako ez dauka itzik, baiña orrelako unetan bai-mena dozu beste edozein izkuntz arrotz erabilteko.

Txantxak txankak dira, baiña gure izkuntz buruz, euskeratzaz dogun arazo zorigaiztoko au ez da txantxetarako.

Idatz buruan agertzen dan bezela, ipuin onen asieran agertzen dan bezela, Urtziñe erritxuak mende luzeetan ez eban izan ezelako oroigarri, oroigallu ez etxe-bikaiñik, ez da be oroi-erazlerik.

Danakandik aiztuta zan erritxu onetan, danakandik esan dot, eta ez da guztiz egia, danakandik ez, zerga-batze sasaoian, urtero zeatz, beintxu baten be aiztu gabe, zerga-batzailleak agertzen ziran. Sasoi areitan jaurlaritzak kontuak izaten ebazan. Erritxu onetan, aitortu dogun lez, iñoiz ez zan jazo ezer apaigarririk, bertan dana zan bake, arauzko, deduzko, oiturazkoa.

Gaur egun oster, Urtziñe ez da erri oroigarri bakoa. Eurentzat, Urtziñetarentzat guztiz mingarriak diran oroigarri batzuk dabez.

Gaur egun txangolari, bidagile bat, Urtziñen agerturik, bertako gizon ospetsu, aipagarri, oroigarrikaitik itaundu, galdetzen ba dau, erritar, auzokieak, erantzun leioke.

Bai, ara ementxe berton, zuk oraintxe oinperazen dozun lurralde onetan, Urtziñe erritxuan, erritarrak, ekandu tolesgabedun jabe ziran. Euren zindotasun, euren alkar-laguntza, alkar-maitatzea, euren itz-emote ukatu eziña, euren kultur eta izkuntz bakarra, euskera, euren azkatasuna, altxor lilugarri guzti onein jaun eta jabe ziran. Eurakaz nekatuz, eurakan negar eta barre, poz-alai ta goibel izanik, lan, bear egin eta jolastuz, txiro ta dirutsu, zaar eta gazte, mende luzeetan atsegintsu bizi ziran

**ARA EMEN URTZIÑE ERRI OROIGARRI GABEDUNAREN OROI MINGARRIAKI!**

## JOSTAILU MIRAGARRIA

Ni, umetxuak eta ez ain umetxuak diranak, postu, alaitzeko, eurakaz jolas-teko egia naz. Gaur-egun apur bat zaarkotzo, baztertuta izan arren, inoiz, beste aldi baten, egoitz dotore, ospetsuan bertako umetxuen jostailu berezia izana naz. Egia esan, ez da arrokeririk, nire asabak be altsu, ospetsuak izan ei ziran. Nire sustraiak burdin-meatztegian agertzen dira. Ondoren lantegi, burdin-lantegi, burdiñola baten langille trebe, azkarrak, umetxuen poz, alaitasuna lortu naian, kotxe dotore, polit baten biurtu ninduen.

Nire leenengo egunak, asteak be bai, niretzat atsegintsuak izan ziran. Jostailu-garazle batek erosita, beste jostailu, popin, andrakil artean, saltoki, denda aundi ederrean, jarri ninduen.

Ainbeste andrakil kirru, euren jaski polit eder dotoreak apaindurik ziran popin ule kirrudun, matrail gorritzka, irribarretxuakaz inguraturik ba nintzan, zelan ez nintzan atsegintsu izango, ba?

Andralitariko bat, Julene eritsona, berak iñoanetik, ez dakit ze lurraldetako erregearen alaba bakarra ei zan, beraz printzetza bat. Baiña bere andrakil lagunak, gehienak behintzat, eretxi onegaz ez ziran ados, egitzat ez eben artzên. Andrakil taldekide batek, Josebek, esaten eutsen, zu printzetzatxu bat ba zara, ni Napoleon Enperadorearen andrea naz. Ja! Ja! Ja! ...

Naigarriak ez ziran gelakide batzuk be bertan ziran. Artz itzal, nabar bat bere orro izugarriakaz papin, andrakilak bildurtuz, alaitzen zana, baita be taldekidea zan bere atabal, danbore, soñu azpergarriakaz entzumenak izurratuz, bärre-santzoka izaten zana.

Jakiña da, atsegin osoa ludi onetan aurkitzea, izatea, ezinekoa da, baiña andrakilatsuen irribarre ta abots alai, pozgarriek, dana menperatzen eben.

Denda aretako goi-aldeko arasa, balda, baten bere margodun jaski, uniformeakaz, zutik, bere garritik dinbilizka espata bat eroala, surpeko, bibote bizartsua, gudagizon-kapitan bat, bere taldeko gudari batzuk inguratzen ebela, agertzen zan. Bere begirukune gogor eta arrokerizko irribarretxuaz, bere menpekoen artean agintari, nagusia, nor zan, jakin-erazten eban.

Gizon hau Joseben guztokoa ez zan, beintzat bere jokaerak olan eritzi ekion, ba da Julene printzatzua dala esaten ebanari, olan esaten eutsan.

Julene, an goiko baldan dagon gudari-gizon nagusiak, kapitanak, bere begiak zugandik unetxu baten be ez dauz aldatzen. Begiratu eizu, begira, zelako irribarretxuak egiten dautsuzan. Paparrean daroazan xingol, gurutza ta domiñiak, gizon ospetsua, aundikia dala, argi agertzen dau. A zelako biko-tea zuek biok egingo zeunkeena!

Dagonilaren erdirantz jostailu-denda aretan, zerbait berezia nabaritzen zan. Ordurarte salketak urriak izan ba ziran, aldi aretan jostailuak egunero gitxituten zirala, ikusten zan.

Gabon aldia eldu zan. Sendi dirudun, aberatsak, jan-gela janari ta edari garesti ugariakaz ornitzen eben bitartean, euren seme-alabarentzat, euren umetxuentzat be, Erregenatako opariak, guztitariko jostailuak, etxeratzen saiatzen ziran.

Ez eukiak, txiroak, naizta gurari, nai, bardin-bardiñiak izan, au da, jan-edari ta opari politak euren umetxuentzat erostea, gabonetako zozketan uts-utsean euren ametsak betetzeko itxaroten eben. Itxaropen zoriontsu onetan uts egiten ba eben, eurak urdailak atzipetu al izateko berakatz sopa bat, olio asak edo etxeko txarriak etxandre apal, doneak, maitasunezko lan ixilean sukaldurik, gozo, janaizko, eziitsu, atsamarrek mizkatzeko aiñan egongo dira.

Apurka apurka jostailuak aldentzen ziran. Errege aurreeguna zan, egun ilun, edurtsua. Erosleak ugari dira ta jostailuak banan banan ba doaz, dendatik aldentzen ba doaz. Erosle artean jostailu berezienak andrakilak ziran, leenengo aukeratuak eurak ziran, baiña nire txanda be eldu zan.

Udaletxe ostean, erriko udaletxe ostean, Ameriketako eskuratuko diruakaz On Antton indionatarrak erriratu zanean eta Maritxu Erriko-tabernakoaz ezkondu aurrean eraiki eban etxe dotore bat, orma-arriz inguratuta, zugaitziz eta larrosa ta lorez ondo ornidua zan etxe orretan, On Antton eta Maritxu bere andrea ta Antton "Antonpotro", On Antton astokoa ba zan, bere semea astikilo aundiago zan, bizi ziran.

Egia esan, Antonpotro nire guztokoa ez zan, mutil baldar, gogor, bakartia izanik, erri osoan lagun bat be ez eban izaten, bere jolasaldiak bakar bakarrik izaten ziran. Nire zorritzarreko Anttonpotron eskuetan izango nintzan. Nire

itauna, nire baitan niñoan, mutil orren eskuetan, Anttonen eskuetan, nilako jostailu bigun batek zenbat denpora iraungo eban?

Aitortxu, erriko oski-konpontzailearen semea, mutil azkar, biotz ondun, mutil oso zintzo, arduraduna, niretzat erri ta albo-errietako gazterik eredugarriena izanik, nik bere eskuetan izatea gura neban. Baiña nire nai, ametsa, bete ezina izan zan. Anttonpontro esku trokol, baldarretan izan nintzan.

Zorionez luzaro Anttonen jostailua ez nintzan izan. Zortzi bat egun, geiago ez. Luzarago nire zorigaitz, atsekabeak ez eben iraun. Indar-gailua erdi-apurturik, artero mutilak euki ebazan jostailu zaar artera, autsez eta zikinkeriz beterik ziran jostailu artera, jaurtia izan nintzan.

Asieran, leenengo egunetan, Anttonek polito zaindu, jagoten, ninduan, arreta aundiz jolasten genduan. Au ez da nik uste izan neban mutila nire baitan esaten neban, baiña bai, laster nigaz azpurturik, edozein okulluan jaurtita asteak emoten nebazan. Azkenean bere etxeko ganbaran, kamaran, beste jostailu zaar batzun artean nintzan. Andrakilak, bereunezko gudaritxuak, pilotak, saldigurdiak, mota askotako jostailuak moltsotuta giñan.

Kanbara aretan zenbat denbora emon neban, ziur ez dakit, luzaro izan zala bai, geroago kide barregarriago giñala, ba dakit. Bertan agertzen ziran antziña liluragarriak ziranak, gaur guztiz arre, autsez beterik andrakila arroputzak. Komandante be agertu jatan, beraz itxura negargarrian, eskumako besoa utsik eta ezkerreko ankatik anker zala, bere surpeko, bibote, bizartzuaz, ori bai tinko, garritik bere espatea dindilizka ebala.

Egun on, komandante jauna, agurtu neban. Zelan joan jako berorreri, ikusgabe izan garan aldi au?, esan neutsan. Matxinada edo borroka gogor anbatetik dator berori ala?

Ez, ni baketsu izan naz, baiña Antton, astokillo orrek, apur bategaitik ezeztuta ez nau jarri. Ondiño, Jaungoikoari eskerrak, neure gudariakaz borroka izugarrienera neure aberria babestu bear izanik, gertu nago joateko.

Aberria ez dakit, baiña ganbara onetan ba dozu zer zaindu, jagon, batez be andrakila polit eta bigun oneik.

Eite, egoera honetan zenbat denbora eman neban ez dakit, baiña bai luzaro ta azpargarria izan zala. Egia esan, dana gogaigarria ez jatan izan. Atsegin-tsu izan nintzan aldi bat be izan neban:

Egun baten sagutxu bikote bat, andra-gizonak zuzen be, euren sorbaldatik jaki-zorroa uts-utsik ebela, gure ganbaran, kamaran, agertu ziran. Sagutxu onein itxura oso negargarria zan. Gose ta otza auzokide nai-ezekoak lagun ebazala, bikote errukigarria gugaz kideratu zan.

Gaurtik aurrera ementxe areto onetan biziko gara, kamara hau gure egoitza izango da, sagu-arrak esan eban.



Ara, begira, begira Kizke, au zan bere andrearen izena, urrean, kotxetxu au guztiz egokia da gure abi, egoitza, eraikiteko. Emen bero-bero egongo gara.

Ondo deritzat, Kuki, andreak erantzun eutsan.

Gure gurari, naia, egiztu, bete daiten, bere baimena kotxe jauna bear dogu ta eskatzen dautsuegu, Kukik baimena aditasun osoz eskatu eustan.

Eskari oneri ezelako eragozpenik ez neutsan jarri, ez. Bordalari bikote one-gaz, izaki ain bigun, babes gabedun au neure abaropean izateaz oso atsegin-tsu nintzan.

Ganbarakide geienak be auzkide oneik ontzat artzen ebezan. Mariñel jantzita tanbor aundi bat jo ta jo eten gabe saiatzen zan mutikoak be guztiz pozik, oiuka iñoan.

Ederto! Ederto! Sagutxuak gugaz geratu daitezela! Eurakaz jolastea ta baita be, biar edo etsi euren sagukumakaz, atsegin izango jat.

Baiña mutikotxu, tanbor orren otsak, sagukumatxuak nekazariko dabez eta lorik ezingo dabe egin. Tanborra ixiltsuago jo bearko dozu, Kukik esan eutsan.

Arazo onetan ados ez egoana kapitana zan. Abots gogor, minduaz esan eustan.

Kotxe jauna, bikote ori ganbara, kamara onetan gugaz bizitzea ez dot uste egokia danik. Orreik dirala ta, zalantza barik, arazo ugari izango dogu. Iñori jaki-gelan euren sakelak gaztai, gozoki ta beste jaki batzukaz betetzea, izaki orrein griña-txar bat dala danok dakigu...

Mesedez Kapitan, jauna, zuzenbidez egin bedi itz, berba, Kukik kapitaren bakar-izketa eten eban.

Jakin bedi berorrek, guk lapurketarik ez dogula iñoiz egin. Gu jaki-gela baten sarturik. Garazle edo sendi aberats baten jaki-gelan sarturik, geu ta geure ondorengoentzat, seme-alaba, guraso ta abar, gaztai apur bat edo beste jaki zerbaitegaz jaki-zorroa geure urdailak ixiltzeko betetzen ba dogu, lapurketarik ez dogu egiten. Guk jaki orreik dagozan lekuan artu ta geure zorrotxuan sartzan doguz. Goiko Epailleak ludi, mundu, onetan diran izaki guztientzat, izaki ezerezana, batxu bat bere baztertu barik, euren artean zuzentasunez bananduak izan daitezcan, ludi onetan, diñot berriro, ezarri dauazan ondasun guzti orreitatik, norberari dagokion otamena artzea, Kapitan jauna lapurketa deritxo. Garazleak, aberatsak, dirutsuak diranak izugarrizko ondasun orreik zelan eskuratu dabez, ba?

Arraioa, arraioa!, sagutxuak komunistak ziran.

Kamarakide guztiak sagutxuen alde zirala ikusirik, kapitana ixil ixilik, bere gudariakaz, ganbara bazter batera itzulirik, izketa mamintsuan jarraitu eban.

Barriro bakea, luditarren artean eziñakoa dan ori, gugaz kanbara aretan izan zan.

Denpora, astia, iñoiz ez da geratzen eta egunak joan egun barriak etorri, Gabonila leenengo egunak ziran. Antton eta Maritxun etxean be, beste sendi dirutsu, dirudunaren etxeetan bezala, jazoten bezala, kamarako jostailu zaarrak, baztertuak izan ziranak, Gabonetako jai aurrean egiten zan, "Ez-eukiaren Aldeko Kanpaña" dala ta, erriko sendi txiro, beartsuen, seme-alabentzat, dirubakoentzat debekatuak ziran jostailu barriaren orde z opatzea oitura zan.

Aberatsak, aundikiak, euren etxeetan bazterturik izaten ziran jazki ta jostailu zaarrak txiroei duan emonez, etxeko gelak arinduz ganera euren baita, giza-barnea nasaitu al izateko aukera gain-gainekoa izaten eben. Euren eretxiz aberatsan eretxiz, txiro, beartsuen, artean dirua banatzea, jazki ta jostailuak banatzea erruki-egintzat dirala uste dabe, karitatea egitea uste dabe. Gaztelarrez "caridad" egitea dala uste dabe. Baiña nire eretxiz, naizta jostailu kotxe baten eretxia kontuan artzekoa dala, uste ez izan, erruki-egintza, karitatea, zerbait astunago, maitasunez inguratua den zerbait goi-mailakoa dala daritxat. Zorionez txiro, ez eukiak be egin al dabena. Lagun-urkoari maitasun apur bero-bero bat opatzea, erruki-egintza bene-benetakoa da.

Eleiz-gelara eroan ninduen. Bertan artetero ezagutu nebazan andrakil, komandante ta baita be nire barnean jaio ta azi zan sagukumatxutariko bat be agurtu al izan neban. Alkar-maitasun osoz agurtu giñan, berak sagukumatxuak eskuan ekarran larrosa gorri-gorri bat opa eustan. Eskertzekoa benetan.

Jostailu banatze eguna heldu zan. Erriko neska-mutilak euren aita-amakaz eleiz-gelan jostailuak begistatu ta aukeratzen asi ziran. Nik neure gurari, naia, argi neban. Nik Aitortxu, Jon oski-konpontzailearen semearen eskuetan izatea nai neban.

Egun aretan esku askotan ibilia izan nintzan. Mutikotxuak jostailu polita ikusten ninduen, baina atseko gupil biak langatu izanik, barrizte bearzanean ziran. Umetxu batek bere eskuetan artzen ninduean, nire barnean larritasun eragin berezi bat izaten neban, eta arik eta umetxuak beste jostailu artean barriri bazterturik jarri arte, larritasun orrek irauntzen eustan. Baiña naisatasuna lortu orduko, beste mutikotxu batek bere eskuetan artzen ninduan, eta bitartean non zan ba nire adiskide Aitortxu?

Bai, ziur, nire baitan niñoan, bere aitak, oski-konpontzaileak, Petragana oski anbatzukaz, konponduko oski batzukaz, joan zan, edo bear ba da arteroko konponketa anbatan diru-ordaiña bila.

Petra, ikastetxeko irakaslearen andrea da. On Teodoro erriko maixuaren andra donea da. On Teodoro ta Petrak bost seme-alaba dabez, beraz oski-konponketa ugari ordaindu bearrekoak eta zoritzarrez diru-eskuratze urri.

Jakiña Jonek, oski-konpontzaileak bere libretatxuan Petra izena ezbatu gabe izaten eban.

Olako baten ara non Aitortxu agertzen dan. A izan zan nasaitasuna nire baitan izan nebana! Aitortxu niganantz urreratzen ikustean pozik nintzan, baiña bai larri be bere eskuetan betirako ikusi arte. Aitortxu bere adiskide Ikerregaz etorren. Bikoteak jostailu ugari euren eskuetan erabili eben, baiña naizta jostailu bat baiño gehiago nai, neska-mutil bakoitzantzat bat aukeratu ta etxerako baimena eben.

Aurrez aurre Aitortxu izan nebanean, nire biotz-barnea saltukari jarri zan. Azkenean Aitorren eskuetan nintzan eta bera ta bere adiskideagaz niñoian.

Nire aitak eta biok, Aitortxuk iñoan, kotxetxu au barriztako dogu. Barri bat bezela abiadan ibilteko jarriko dogu. Egun bi barru Mirenegaz jolastean egoitea, uste dot.

Mirentxu, eleiz alboan, arri-orma eder batek inguraturik dan lurralde erai-kita dagon etxe garesti, dotore baten, bere aita-ama ta neskame biaz bizi dan neskatilatsu bat da.

Mirenena, au da zuzen be, etxearen izena, Florenek bere andra Miren maitez ezkondu baño leenago eraiki eban jauregia da, Mirenena izendatuz.

Floren erri ta alboerrietako gizonik aberatsena da, baiña bere diru ta ondasunak jaiotzetik ez jatokozan, ondorenak ez ziran. Azkarretxe basetxean Patxo ta Asun, nekazari bordalariak bost seme-alabagaz bizi dira. Azkorretxe palda urriko basetxea izanik, Floren eta bere anaiak euren bizi bidea basetxetik kanpo ikusten eben.

Floren amalau urte bete berria zala, erritik asao barik aurkitzen zan uri txiki baten mezulari bezela guztitariko salgaiak saltzen ziran denda baten alogoratu zan.

Mutila azkar, deduzko, langilea izanik, lan egifiik ganera iluntzetan ikasten jarraitzen eban lez, ogei urte bete ebazanean ez jakon izan bat be zail, gaitz, bere izenean garazle bezela baserri ta lurgintzarako tresna ta langailuak lantzen ebezan denda bat bere izenean eukitea. Bere naia betetzeko, artero izan ebazan ugazabak, nagusiak, bizibide barri onetan, bere laguntzaile berezienak, izan ziran.

Florenek dirua, txanponak, eskubereaz pillotzen ebazan, baiña naizeta aberatsa izan, bere aita-ama ta anai-arrebak ez ebazan aitzu, ez. Azkarretxe erosi ta aita-amari opa eutsan, onelan etxagunak biurturik. Arrebea aita-amagaz geratu zan, eta anaiak Florenen laguntzaz lurgintza ta beste tramankulu batzuk konpontzeko lantegi bat antolatu eben.

Florenek garazketatan izan eban zori ona, sendi-bizitzan ez eban izan. Miren, Patxo Ibarguneko alaba bigarrenagaz ezkondua, alabatxu bateaz sendia osoturik zoriontsu, atsegintsu bizi zan.

Umetxu zoragarria, Mirentxu sei urte bete barria zala gaitz izugarri batek jota, osagilleak eriotzaren erpa zikiñetatik gaizkatzea lortu eban, baiña neskatilatxua betirako, bere bizi osorako gurpil-aulki bateri lotuta, jezarrita, mirari bat ez ba zan, egon bearco dau.

Floren eta bere andra done Mirenentzat benetan gertakizun negargarria. Baiña bizia ez da geratzen eta aurrera ekin bearco jako. Umetxua mizkez, maitasun osoz azi ta ezia izan zan. Neskame bat bere serbitsurako soilki eban. Mirentxuk, neskatilatxuak, adeitasun bereziaz agertzen jakon adiskide bat eban. Aitortxu, Oski-konpontzalearen semea egunero, egun battxu bat be utsik egin barik, umetxuaz jolasaldia egitera joakon.

Mirentxu etxe aurrean, bere etxe dotore aurrean, atari aurrean eguraldi ona ba zan, eta atari barnean euritsua izanez, orduak emoten ebazan jolasten, baiña andereño bat irakasle bezela eban arikasduteko.

Mirentxu ta Aitor betirik alkaturik izan ba ziran, neskatilatxuaren gai soalditik aurrera euren alkartasuna, euren alkar-maitasuna, aundiagotu zan. Mirentxun gurari, nai bat, gurari txikiena, Aitorrentzat bete bearrezko agindua izaten zan.

Bai Mirentxu... Bai... Mirentxu... zuk nai dozun lez jolastuko dogu...

Baiña mutikoaren jokaera, eginkera, menpekotasuna ez zan, ez da menpekeririk be, maitasun obengabe, garbi, zintzoa baño.

Floren, Mirentxun aita egunero bere lanetik etxeratzen, bere kotxe dotoreaz atari aurreraño, neskatilatuxa itxaroten egoten zan lekuraño sartzea oiturratuta egoan. Kotxetik urten, bere alabatxua besoetan artu, umetxua bere samatik dindilizka mosukatuz, bazkaltzeko, bikotea etxeratzen zan.

Aitortxu be sarritan Mirenenengo maikidea izaten zan. Floren eta Mirenen sendiak mutikoa oso maite eban, izan be Aitortxu aiñako mutil biotz ondun, maitalea, aurkitzea ez da erreza.

Mirentxuk eta Aitorrek euren jolasketatan bereziki erabiltzen eben jostailua ni izaten nintzan, mutilaren kotxea. Atari aurrean bikoteak orduak emoten ebezan. Atari aurrean kanpoan eguraldi ona ba zan, eta atari barnean ots edo euria izanik. Ikastetxetik etxerantz, bere etxerantz, joatean aitortxuk Mirenean egotaldi, jolasaldi bat egin barik, igarotea, eziñekotzat artu bearrekoa zan.

Egun baten, zuzen be, Mirentxu urtebete aurrean zan, neskatilatxua ta Aitor beti bezela atari aurrean nigaz jolasten ebiltzan. Eguerdia, beraz Floren, Mirentxun aita, bazkal ordua zan ezkeru, etxeratzeko sasoa.

Florenek bere kotxearen bozinea jo ondoren egunero egiten eban bezela atari aurrera geldiro-geldiro sartzen doa. Une beratan ni, Mirentxu ta Aitorren eskuetan nintzan, ziur ziur ez naz, baiña uste dot Aitortxuk nire indargailua larregi emon eustala, gogorregi emon eustala, egite orren ondorioz abiada izugarrian Mirentxun aitaren kotxe dotoreaz topo egitera niñoiñan. Une batetik bestera kotxe aundiak, bere gurpil aundiek, zapaldurik, birrindua izango nintzan.

Neskatilatsua bere jostailu maitea ezereztuta zala ikusirik, umetxuentzat altxor maite bat nintzan, kotxe au, kotxe dotorearen gurpil itzal areitatik ni gaizkatu naian, bere kotxetxua gaizkatu naian, izugarritzko indarka bat, bere gurpil-aulkitik. Jagi, altza naian izugarritzko indarkada bat eginik, zorionez bere aitak be une ber-beratan bere kotxea gelditu eban, zutundurik oinkada, urrats, pare bat aurreratu, makurtu ta bere esku bigunetan artu ninduan, birrindu, ezereztuta izatetik, gaizkatu ninduan.

Neskatilatxua negarrez, pozez negarrez bere aitaga urreraturik, alkar besarkatutik bat egin ziran, oraingoan bere aitak egunero egiten eban bezela barrizturik, oinkada sendo, alaitsuz, iñoren laguntza barik, atarirantz bere ama maitea basarkatzen abiatu zan. Aita-ama euren alabatxua ta zelan ez Aitortxu atarian laurak bat egiñik, barre ta negar naastatuz, luzaro jazorikoa siñistu eziñik, iraun eben.

Neskatilatxuak osoz sendoturik, bere gurpil-aulkia betirako baztertu eban. Barriro Mirenean zorion utsa zan alde guztietatik nabaritzen zan.

Gaske bikotea, euren soin, gorputzak, aunditu, azitzen ziran aiñan, euren alkar-maitasuna be aundiagotzen joian, eta sendi barri bat osotzeko garai eldurik alkar-ezkondu ziran.

Ni be adinarotik zaartzaro aldira eldua nintzan eta gertaera orren ondorioz, apur bat baztertuta naz.

Aldi guztiak bardiñak ez dira izaten. Aurtzaro, gaztearo, adinaro, zaartzaro: Gaur egun nire adiskidetuak, neska mutil maiteak, andra-gizonak eginda dira.

Mirenena, Floren eta Mirenen etxean, Mirentxu ta Aitortxu barri batzuk alaitzen dabe.

Ni ondo merezitako atsedena dala ta, etxeko toki berezienean intxaur-sustraitzko altzari garesti eder baten, alda biurturik dan altzari baten gailurrean jaungoikoturik, arretaz zaindu, jagonda, egunero luma bigunakaz auts eta zikinkeri guztiak kenduz, baketsu bizi naz... Baiña egia esan, nik Mirentxu ta Aitortxugaz jolasten jardun naiago neban... baiña aldi areik joanak dira...

Ara emen nire kondaira laburra. Irakurtean, iralurle, poz, atsegin apur bat izan ba dozu, ni be poztuko naz, eta bere ondore, "moraleja" onuragarria ba diratxazu, nire esker-ona.

## GURE IKURRIÑA

Politak dira bai, gure lurraldeak, gure erri, baserri, mendi, zelai, ibar-erreak, ta itxas bazterrak politikak dira benetan. Toki politenatariko bat Matzbeko erritxua da. Albo-erri ta uritarrakaitik osoz bekaizkeriz begiratu dan erritxua da. Matzbekotarrak, bertako biztanle, auzokideak, gure asabak izen jarri eutsonean, oker egin zirala esaten dabe. Erritarrak uste eben, "Atsegin Lurra" izena erri oneri egokiago etorkiola, ta nire ustez be, guztiz oker ez egozan.

Itxasaldean, uri nagusitik asao barik, erreketu ur gardedun bik zearbidez zearkatzen dauan aran edatsuan saldar bat iruditurik gailurtzen dan tontor txikitzu baten, eun bat etxe an emenka eraikita, geienak basetxeak, osotzen daben erritxua, Matzbekoa da.

Errekondo basetxea, bere izenak adierazoten dauan bezela, Zubiarte deritxon errekatxu ur gardendun, saltokari, kaskailu ta angiren bizileku zoragarriaren alboan dago eraikita. Beratan, Errekondo basetxean, Patxo ta Pantxike, iru seme alaba, zaarrenak biak gizonezkoak eta gazteena andrazkoa, nekazaritza euren bizi bidea izanik, sendi alai ta zoriontsu bizi da.

Patxo ez da etxaguna, baiña naiz ta bordalaria izan, Errekondo etxalde palda edatsua erreka bazterrez mugatua dan ezker, ibar, araneko, lur jori, emankorretan, sendia elikatzeke beste uzta urtero lortu al izaten dau.

Patxo erriko gizonik ospetsuenatariko bat da. Patxo erri ta albo-errietan dauan aomen, ospe ona, bere kortako bai esnetsu edo kamarazko arto-indabak urte osoan irau eutsalako ez da ospetsua, bere izakera emankor, esku zabal, ta erritarrei lagundu ta mezede egiteko dauan zaletasunagaitik baño.

Patxo bere auzokideakaz igandero erdiko Mezan, bederatzietako mezan, ikusi ahal dozu.

Izan be, eleiz-pean guzur bat edo beste esan, erronka ugari ta beirik esne-tsuen norena dan eztabaituz, nekazariék ze zoriontsu izaten diran. Benetan atsegin obengabea, ez-eukiak be merke ta errez lortu al dabena.

Patxo, biar goizean zure idiak ederto etorriko litzakedaz ba, auzokide batek esaten ba eutsan, Patxon erantzuna beti bardiña izaten zan.

Ba dakizu nire idiak non egoten dirazan, baita be buztarria ta bear izango dozuzan tresnak. Nire basetxeko albatea idegia egongo da, ta biar goizerako nire idi bikotea zeurea dozu.

Onelako gertaerak gure baserritarraren biotzean azaldu eziñeko zorion, atsegiña sortzen eban. Sifiñsmen berodun, deduzko gizon onek beti gizabidez jokatuz, auzokide ta erritarren artean, aomen, ospe ta itzalpen eta baita be maitasun zintzo bat eban.

Baiña Patxo ipuin onen aintzindaria ez da, beintzat berezia. Aldi aretako andra-gizonak gogoratuz, eta zelako andra-gizonak!, gizarte ez-barriztagarri a gogoratuz, ipuintxu onetan eurei tartetxu bat opatzea, bearrezkoa eritxi jat.

Patxo ta Pantxiken semetariko bat, bigarrena, Kepa da, ipuin onen aintzindari nagusia.

Kepa mutil azkar, langile, ameslari, erri maitale utsa da. Gure mutilak leenengo ikasketak erriko ikastetxean egin ondoren, amaika urte bete barri zala albo erriko lekaide-etxe baten beste iru urte ariskatzen ibilliz ganera, uri nagusiko ikastetxe baten bere ikasketak osotu ebazan.

Kepak bere etorkisuna zein bidetik izango zan argi ikusten eban. Errekondo basetxean berantzat etorkizunik ez egoala ba ekian, ain maite eban basetxetik kanpo izango zala argi agertzen jakon.

Bere elburua, gure mutilaren elburua, bere guraria, garazle izatea izanik, iñoren menpean izatea ez eban nai. Azkatasun zalea, ogi-bide lez bere burua azke, iñoren menpekari gabe izatea zan ezkeru, mutilaren amesetariko bat dendalari, denda baten jabe izan eta sendi bat osotzea zan.

Gure mutilaren adiskide bereziena, ipuin onetako bigarren aintzindaria Joseba Koldo da. Bere adin bardiñekoa Joseba Koldo Maltzbeke erritxuan jaoa da, baiña uri nagusian bizi. Bere gurasoak, aita-amak, euren seme-alabaren ikasketak dirala ta erbesteratu ziran. Egoera au gure adiskideentzat igandero ta jai-egunetan alkarregaz bizi al izateko ez zan izan eragozpenik.

Eretxi, uste, burutasunetan be, beintzat geienetan, adiskide biak ados egoten ziran. Kepa mutil sifiñsmen, fededuna zan, fede beroduna, ostera Joseba

Koldo siñismen otzduna. Siñismena zan bikote onen ezbardintasun utsa. Baiña Kepak esaten eban lez, eretxi, burutasunak, biotz eragiñetan, gertakizunetan, uts-utsunean biurtzen ez ba dira, balio gabe osoak doguz. Bateoaren bidez soilki eta ez egite on, egikizun on bitartez, Kristau izatea, guzurrezko kristautasuna deritxat. Egia esan, Joseba Koldoren egintza, egiteak, batez be lagun-urkoari mezede egin, lagundu, goragarriak ziran.

Joseba Koldo sarritan neskatil anbateaz maitemindurik izaten zan, baiña dantza-aldi, mendira joateak, igoteko eragozpenik ez eban izaten. Adiskide bi onen artean ezkontza buruz alkar-izketa mamintsu ta luzeak izaten ebezan. Kepak gertakizun au epe luzean, ezkontzea, bera ezkontzea, epe luzean ikusten eban, bera leenago aita-amagañ eban ordaindu eziñeko zorra, arindu nai ebala iñoan, baiña sendi barri bat osotzea be atsegingarria ikusirik, epe luze luze barik ezkontzeko sasoa elduko jakola, iñoan.

Bitartean adiskide biak euren zeregiñetan jarraitzen eben.

Ipuin onen aintzindari nagusian, Keparen geroan zer-ikusi berezia dauan Ander bere lagunaren kondaira laburra azaltzea bearrezkoa deritxat.

Ander Maltzbekotarra da, bere aita-ama ta iru anai-arrebagaz Azkorre basetxean bizi da. Kepa ta Joseba Koldo baño sei urte zarragoa, baiña adin ezbardintasun au, Kepa ta Joseba Koldoaz adiskide zintzoa izateko ez da eragozpenik.

Miren Ikurtzako, neskatil kirru polita, langilea Anderren andra-gaia zan. Alkar maitemindurik ziran eta epe epe labur-laburrean ezkontzea uste eben.

Ain zuzen be gertaera onek, Ander eta Mirenen alkar-maitasunak, buruauzte bat baño gehiago Keparen buruan sortzen eban. Kepak bikote onen maitasun, alkartasuna, bekaizkeriz, zer diñot bekaiztasunez, gure izkuntza maitteak, euskerak, itzaren esan-naia aldatzeko dauan berezitasun, erreztasunagaz baliotuz, Kepak sentitzen ebana bekaiztasuna zala esatea oker dala ez dot uste, bekaiztasunez begiraten eban.

Bein baño geiagotan Kepak bere baitan esaten eban. Oneri, nire adiskide Anderreri, bere aita-amagan dauan maitasuna zintzoa, Miren bere andragaia berotasun, zintzotasun bardin-bardinagaz maitatzeko ez da eragozpenik. Bai Kepa, gai onen buruz, eskontza buruz, oldoztu bearrean zara.

Ibargoi basetxean be Udabarri zan. Luzaro, urte luzeetan bordalari-gabe izan-ondoren Ibargoin basetxean bizi barri bat agertzen da.

Udabarriko Larunbat argi, eguzkitsu, egun alai baten, Ander eta Miren Maltzbeko eleizan ezkondu ondoren, Ibargoi basetxean euren egoitza ezarri eben. Euren deusa, puska guztiak zekorto bikote batek narrasten eban gurdi, idi-



gurdian ezarrita, beraz puska guzti urria, ta bei mota zuridun bat idi-burdian atsetik soka bateaz lotuta eroela, lbargoi basetxean bordalari bezela, barnera-tu ziran.

Ander eta Miren ezkonbarrien ondasun guztiak zeintzuk ziran aitzateko esaldi luzerik egin bearrik ez da. Aitatu doguzan zekor bikote, bei argal, mota-duna ta esne urrikoa, oge bat, lau aulki, maia bat, beste altzari anbat edo beste, sute tresnak eta lurgantzarako atxur, kako, laia ta beste tresna batzuk, lbargoi bordalarien ondasun eta ondore guztiak ziran. Bizitzan izaten diran arazo, joka-bide neketsu, gogoratarako bidali-zorrotxu urria. Baiña ezkonbarriak neurtu eziñeko ondasunak eurakan ebezan. Leenengo ta bein, alkargana-ko maitasuna, seme-alaba batzukaz sendia osotzeko nai bizi-bizia, euren erri ta aberria maite eben, ta gogotsu euren alde lan egiteko naimen osoa. Bizitze-ko gurari bizi-bizia, amai bakoa.

Ander eta Mirenek lbargoi basetxea alogeratu ebenetik, urte bete luzea joana zan. Ander erdi nekazari ta erdi arotza izan ezkeru, aroztegian lortzen eban, alogeragaz eta nekazaritzan lan gogorrean saiatur urte osorako ez ba zan be, zati on baterako uzta kanbaraturik oparotasun gabe baiña larritasun barik be, nasai bizi ziran.

Aitutako gertaera guzti orreik poz alai izateko zio naikorik izango ez balitz, epe laburrean lbargoi basetxean biztanle barri bat izango zan. lbargoiko bordalariak umetxu, seintxu baten irribarretxuak zenbateraño egoitza alaitu, poz-tuten dauan jakin ahal izango dabe. Miren etxandrea umedun zan eta egun gitxi barru umetxu bat itxaroten eban. Ander eta Miren osasuntsu ziran, zer geiago ludi onetan zoriontsu izateko eskatu lei, ba?

Euren seintxuen irribarretxuak, leenengo itzak, aita ta ama, umetxuen leenengo oinkadak gogoratuz, bikotea, izate, errealitatea izango balitz be, alaita-sun osoagaz ez eben gozatu al izango.

Txori bikotetxua euren txorikumatuak arerio guztiekandik babestu ta gaiz-katurik, abitik kanpo egazka azke ikusita, abeslari, amai gabeko abesti ez-tsuakaz inguruak agurtzen dauazan antzera, Miren eta Anderrek euren biotze-tako zorion utsa, euren aurpegietan agertzen eben.

Ludi, mundu au, atsegin tokia ez dala jakiña da. Ludi onetako atsegin, zoriona guztiz iragankorra da. Arrast, mixtoaren, garraren argi barotasun antzekoa. Bera biztuta, arrasta biztuta, bere argitasun beroaz gozaten asi orduko, amatau egiten da. Putzkada bigun, leun, txikienagaz, alienatu.

Baiña atsegiña, zer da? Ander eta Mirenen burutasun, gurari, asmakisunak, amesak ziran, bai, baiña ames garbi, obengabe, onurakor, ameskeriak ez ziran.

Anderrek osasun utsa eskatzen eban, gaiñeroko amesak, bere beso indartzuakaz lanerako balioturik, bere sendi bizitza obeagotu, bere egoitza eratu, bere ondasunak gizonki, dezduz irabasi, bere andra ta seme-alabak oparotasun gabe bai, baiña urritasunik izan barik nai izatea. Txiroak, ezeukiak be iñoren baimen barik lortu leikeen atsegiña.

Ander eta Mirenek ain urduri, kezkatzu ta baita be alai, posez, itxaroten eben eguna, eldu zan. Mirenen sabelean zan aurtxuak, ludi onetako bizitza, gizartean tarte izateko naian, leenengo deadarrak egin ebazan.

Ander, ogeratuta egoan bere andra Mirenen alboan zain, larri egoan. Aita izateko ordua urreratzen jakola ikusirik, Anderrek bere auzokide bestaldeko Inazio Osagile dei egitera joan zan, bialdu eban.

Arik asti laburrena, Osagillea Ibargoi basetxean Miren aztertzen saiatzen zan. Gertaerak, jazokizunak, ohituraz agertzen zirala, egia zan ganera gizona, senarraren nasaitasuna lortu naian, Osagileak iñoan. Seingintz zoriontsua izango zala, esaten eutsan.

Alan izan zan, umetxua ezelako eragozpen barik ludiratu zan. Mutil sendo, eder batek Ibargoineko sendia gaurik aurrera osotzen eban. Sendi ta adiskideak auzokideen artean dana zan poza, alaitasuna. Miren umetxuaren ama errukigarria kalte, gaitz barik, osasuntsu, aurkitzen zan. Benetan egun zoragarria Ibargoieneko sendiarentzat.

Baiña elgaitz, zorigaitza, ustekabean edozein unetxua sortzen da. Ibargoi basetxean be poz, alaitasuna, oso iraun-gabe izan zan. Arik sei ilebetera, umetxua jaio zanetik sei ille-betera, Miren ama errukigarria bere bularrean sortu jakon gaixo zital batek, Ibargoi basetxean sendiak eban atseginaldia eten eban.

Miren odol-galtze baten ondorioz oso larri, estu zan ezkerro, Anderrek Osagileari dei egitea erabagi eban.

Sendagilea leiatsu Ibargoi basetxean aurkezturik, Miren arakatzen saiatzen zan. Baiña naizta alegin guztiak egin andratxua geroago ta makalago aurkitzen zan. Sendagilea gaixoaren albotik gau ta egun, Ander Mirenen gizona lagun ebal, unetxu bat be aldendu gabe, ernai lanean eriotzaren aurka saiaturik.

Dana alperrikoa, Mirenek gaixo zital, iltzaila, gaiñeratu ezinik, Ander eta bere sendia ta adiskideak, oinaze, samintasunez ondaturik zirala, bere azken-arnasa mingarriaz ludi onetako atazak, bere ames zoragarria, lilluragarriak tar-ten zirala, betirako baztertu ebazan.

Anderreri jazorikoak, Kepagan, Kepan biotzean, barnean, eragin ezbardiriak sortu ebazan. Alde batetik; maitasuna, Anderrek bera inguratzen eban

guztia maitatzeko eban naimen bizi-bizia. Bere aita-amak, bere andra Miren, adiskide, erritar eta aberria maitatzeko eban naimena batez be, Kepa arritzen eban. Guzti onen ondorioz, Kepan baitan zorion, poz, alaitasuna, betiko bide-tik bere bizitzan jarraitu al izateko naimena bizkortu, sututen eban. Baiña beste aldetik, eriotzeak beragaz dakarran samin, oiñaze, neke, negarra. Poz, alaita-sunatik, atsegifietik goibeltasun, etsimenera dagon bitartea oso laburra dala, olako gertaerak agertzen dauskue.

Jazobear onen aurrean, Kepak erabagi zintzo-zintzo bat artu eban. Luzaro azkenengo gertaerak oldoztu, ausnartuz, jaiotzetik jatorkozan zaletasun, griñak, iñoiz baño sutsuago, indartsuago bultzatzen saiatzea.

Erri ta albo-errietako gaztetsun artean mendigoizale talde, dantza talde, ikastola, euskal-kultura ta euskera gorengo mailara jaso naian, Kepak egin eban lana benetan txalogarria izan zan. Erri ta albo-errietako jaietan Matzbeko "Txindor Alai" taldea dantza taldea, jaiak alaitu, ta euren dantza ta abestiekaz ikusleek gozatu al izateko, deitua izaten zan.

Igande jai-egunetan, eguraldiak zilegiten ba eban, oiturazko zan Kepa bere adiskideentzat goiztar mendirantz joatea, baiña Igande aretan albo-erriko jaiak alaitzen joateko deia izan eben.

Udabarriko egun argi, eguzkitsu baten, Gorandu erritxuan, Matzbekotik asao barik dan erri politean jaiak ziran, eta urtero egiten eben lez Matzbeko "Txindor Alai" taldea, gertu egoan egun alai bat emoteko.

Goiztar gure mutilak, Kepa ta Joseba Koldo euren dantza jazkiakaz, praka ta alkondara zuria, garriko ta txapel gorriaz, sedazko idun-zapi margoduna, ikurriña margodun zapia idunean, egun alai, atsegintsu bat gozatzeko gertu dira.

Kepa, bere amak maitasun osoz gertatutako arrautz-opila, oilosko erre, piper prigituakaz orniturik zan zorrotxua lepoan, or doa bere lagunakaz topo egitera.

Kepak bere etxetik autobuse itxaroten egoan lekura zan bitartea txistu baño ariñago egin eban. Eleiz ondoko landatxuan egozan lagunak alaitasun osoz agurtu ebazan esanez.

Egun on lagunak, iribarreka bere aurpegian agertzen zan poztasuna ondiño be aunditu naian, iñotsen. Ez dakit zergaitik, adiskideak, baiña gaur egun berezi bat nabaritzen jat. Niretzat ez eze zuentzat, be gaur egun atsegingarria izango dala, asmatzen dot. Autobusera igon dagigun ba, ta gure abesti, eusko-abesti politakaz, goizabar zoragarri au txio alaiak lagun, agurtu ta alaitu daigun.

Bidalia iraun eban bitartean, autobusen ziran abesti ta oiu saratatsuakaz, bertako jaun eta jabe gaztedia zala, argi agertzen zan.

Gorandura eldurik, eusko-ohiturari jarraituz leenengo Meza Deuna entzun ondoren, dantza taldeek, bai mutil eta baita neskatilak be, euren dantzakaz jai-kide, erriko plazan batu ziran jaikideak, alaitu ebezen.

Bazkal ordua eldu zanean, mai batzutan jezarririk, bakoitzak bere amak kuntutasun osoz ornidutako zorrotxuko jakiak, bein banaka ardao zatoa estutuz ao-gosez, jan ez, iruntsi ebezan.

Bazkal-ondokoa txantxetarako sasoia zan. Bakoitzak bere txantxa, urteke-ra barregarriak esanez, batzarra alaitzen saiitzen ziran.

Manutxu txantxa-zalea, Bekotaberneko Eulojion semea be, bere esakera, tortiko batzuk esanez, taldekidei barre, poz-aldia eragiten eutsen.

Ba dakizue, iñotzen, bein baten neskatil bikote bateri jazorikoa?

Ez, ez, edestu euskizu manutxu.

Ara ba, neskatil bi ziran, bata Durangokoa ta bestea Lekeitiokoa. Biak gaztetxuak zirala, Biboko ikastetxe, barnetegi baten euren ikasketak egiten urte batzuk emon ondoren, euren etxeetarantz joan ziran. Olan neskatil oneen adiskidetasuna etenik, bakoitzak bere jaiotze errian bizi barria jarri eban.

Arik, ikastetxetik urtenda, urte mordo geroago, Uri-nagusiko kale baten adiskide biak alkar topatu ziran, eta olako gertaeratan jazotzen dan bezela, alkar mozukatu ondoren itaunak, galderak, asi ziran.

Zeer? Zelan da zure bizitza? Ezkondu zifian?, itaunak neskatil biak betara egiten ebezan, erarik egokiena alkar ulertu eziña izateko. Azkenean, Mirenek, Miren Olatsuko neskatila da, neskatila izanakoa, orain andratxu bat da, bere lagunari esan eutsan.

Ara Edurne, goazen akeite-etxe batera, bertan akeita artzen dogun bitartean alkar-izketa atsegingarri bat izango dogu.

Andra gazte biak, olan egin eben. Joan ziran akeitetxe batera, jezarriri mai baten eta bereala euretariko batek besteari esan eutsan.

Zer Edurne, ikastetxean banadu gintzanetik, zelan izan da zure bizitza, ezkondu zintzan? Zelakoa da zure gizona?, Mirenek bere lagunari itaundu eutsan.

Bai Miren, ezkondu nintzan, albatxu bat dot eta Olatzu nire jaiotze errian bizi naz. Nire gizonak diru-etxe baten egiten dau lan, ez da beste ezerezkorik, aloger polita eskuratzen dau, ta batez be alkar oso maite dogu ta orren ondo-rioz batez be, atsegintsu bizi gara.

Zure atzamarreko eraztunak be ezkondu zintzala adierazoten daust, zela-koa da zure gizona ta zelan bizi zara Miren?, Eurnek galdetu eutsan, bere lagunari itaundu eutsan.

Bai, ni be ezkondu nintzan. Itxasgizon bateaz ezkondu nintzan, itxas-ontzi-ko Nagusia, kapitana da, Zalduondo nire errian alabatxu bateaz bizi naz. Nire gizonak diru asko irabasten du ta illero dirutsa bialtzen daust. Berak, nire gizonak gidaritzen dauan itxas-ontziak, atserritik-atserrira bere bidai guztiak dauz, emen urbil ez da kaiaritzen. Urtero alkarregaz, batera ama bost egun egoten gara, aldi aretan oporrak amabost egun izaten ziran, Mirenek erantzun eutsan.

Ama-bost egun alkarregaz urtero uts-utsean, soilki, egoten zarie, Eurnek eten eban alkar-izketa, ezin zeintek bez atsegintsu izan, Miren.

Bai, zelan ez Eurne, amabost egun beingo baten joaten ba dira...

Barre-zantzoak, taldekideen barre-zantzoak, plaza osoan oiartzun eban.

Gaztediari dagokion urduri, larritasunez, jarraian jai-aldia barrizturik, biribilketa, dantza ta abestiakaz, goizean baño be alai, saratatsuago agertzen zan.

Kepa, berak uts-utsean egin leiken zerbaite egiteko asmoz, plaza alboko edantegira, akeite bat artzen joan zan.

Akeite artu ta bere zeregiña bete ondoren, Kepa bere taldekideekana urreratzen abiatu orduko, ara non, neskatil kirru gazte, lirain, begi urdin matrail gorrizkadun bat ikusirik, Kepa neskatilatxua egoan tokirantz artez artez, Keparen be neskatilatxua egoan tokirantz artez artez, Keparen begiak neskatilatxuen begiakaz, neskatilatxuen begi urdiñakaz adi adi zirala, urreraturik, Kepak esan eutsan, agurtu eban.

Plaza onetan dan neskatilarik polit ederrenak, bazter onetan bakar bakarririk, zer egiten dau?

Jaseko mutil gazte, isekari bat noiz agertuko jakon zain ementxe da, neskatilatxuak erantzun.

Ni Kepa Galparsoro Antxia naz, Matsbekotarra, Kepak esan eutsan.

Ba ni Julene Pagai Zelaia, Goranduztarra, neskatilatsuak erantzun.

Gure bikotearen alkar aurkeztea olan izan zan. Ondoren arrasti osoan maitemindurizko alkar-izketan jarraituz, dantza ta jolasten, astia emon eban. Ur bandiñetan uger, iger, egin dogunok, apur bat gora-bera, bikote onen alkar-izketa zein gaiatzaz izango zan, ba dakigu.

Kepa ta Julene, Julene ta Kepa, alai, txeratsu, alkar-maitetsu agertzen ziran. Arrasti, arratsalde, aren orduak bikote arentzat benetan laburrak. Eurak nai eban baño askoz ariñago eleizako kanpadorreko kanpaiak, dunbutzarrak,

otoitzera deiturik, jaikidei euren etxeetarantz abiatzeko sasoa eldu jakela, adierazoten eutsen. Jaialdia amaitu zala, ta bakean etxeratu bear ebela, jakin-azo eutsen.

Ez da atsegingarria, pozgarria, batez be neska-mutil gazte bikote batentzat, arrasti osoa txeratsu, koipetsu, emon ondoren, ordu lilluragarriak gozatu ondoren banantzea, alkar agurtzea, ta olako zerbait gure bikoteari jazoten jakon. Kepa ta Julenek agurtze-aldia al izan eben guztian luzaturik, alkar agurtuz bakoitza bere etxera joateko ordua eldu zan.

Datorren Igandean barriri alkarregaz egongo gara, Julene, Kepak iñotsan, datorren Igandean. Bereala, idunean lotuta eroan sedazko zapi ederra, dantzaldietan erabilten eban ikurrin irudizko, margozko, sedazko zapia, Juleneri opa eutsan, esanez.

Eutsi Julene ikurrin margodun zapi au, arrasti au gogo-arazi daitsula.

Julenek bere esku laztanakaz ertsatuko ikurrin margodun sedazko zapi, esku-zapi polit bat, emon eutsan iñotsola.

Eutsi Kepa zapi txiki kutun au, osoz maite dodan ikurrin-zapitxu au artu eizu zure eskuan, arratsalde atsegintsu onen gogoragarri izan daitela. Agur Kepa, ikusi arte... Agur...

Agur Julene Igande arte... Agur..., maitemindurik Kepak agurtu eban. Eta neskatilatxua bere etxerantz abiatu zan.

Kepa, toki beratan, kalean, tinko. Bere begiakaz Julene etxean barneratu ta eskutxuaz azkenengo agurra egiten ikusi arte, jarraitu eutsan.

Kepa bere sorgor-aldi, ametzeder alditik beratu, izarturik, autobuse egoan lekurantz begiratu ebanean, eta bere lagunak berari itxaroten egozala nabariturik, bereala bertarantz leiatsu abiatu zan.

Gure mutila oldozkor, gogoetatsu joian, baiña zerbait atsegingarria, zoragarri arrasti aretan izan ebala, bere aurpegiko alaitasunak jakin-erazten eban. Baiña Kepak Julenegaz gertakotzaz eraskin, azaldu nai-gabe. Bere adiskide zintzoa zanari, Joseba Koldori be, ez eutsan gai aretzaz ezer esan.

Biar-etsitan Joseba Koldo alkar-izketarako astia izango dogu, gaur ixillik egotea zillegi eistazu, esan eutsan. Bereala autobusen barneraturik.

Biramon, Astelenetik larunbatara arte aste luzea Kepantzat, beintzat gure mutilari olan eritxikion.

Igande aretan Julenegaz jazorikoa Joseba Koldori, zelan ez, zeaztasun osoz azaldurik, adiskide biak pöztu ziran.

Astea gaiñeraturik, ain leiatsu itxaroten eban Igandea, Kepak urduri itxaroten eban Igandea, eldu zan.

Igande goizean, sarritan egiten eben bezela, Kepa ta bere taldea mendirantz joateko, goiztar batu ziran. Mendiko aize osasuntsua arnasartuz goiz osoan toki politak ikusirik gozatuz, bazkaldu ondoren Goranduz errirantz mendigoizale taldea abiatu zan.

Kepa urduri, leiatsu, Julenegaz emongo ebazan orduak gogoratuz, alai, irribarre ta txantxelari joian. Arratsalde zorion, atsegintsu bat izango ebala, Kepa ziur zan.

Baiña zoritxarra egun eta toki guztietan egoten da ta, naiz ta Kepa arrasti osoan erriko plaza inguruan zear eta zeatz bazter guztiak arakatu, Julene bere maitearen aztarnik be ikustea ez eban lortu. Bere naigabe, oiñaze, biotz barnean ebala, Kepa etxeratu bear izan eban. Kezkatsu bai, bai, baiña aldiska itxaropentsu be bai. Bere baita nasaitu, bigundu, naian, baztertu ezifiekko arazo anbatek Julene beragaz egoteko eragozpena izango zala, ziurtasun guztiz uste eban. Urrengo Igandean, datorren Igandean bai, beragaz egongo naz, bai ziur, Kepak bere baitan iñoan.

Itxaropena ez dakit nork edo noiz ikertuko eban, baiña ara ze asmaketa zoragarria, txiroak eurak be iñoren baimen barik, eurentzat arturik gozaten dabena.

Datorren Igandea be eldu zan, bizi diranentzat datorren guztiak eltzen dira ta, beti abiada bardiñean geldiro-geldiro datorren guztiak eltzen dira, zori on edo zori txarrerako eltzen dira. Baiña Keparentzat Igande ori be zoritxarrekoa izanik, gure mutila barriri goibel, mindurik, Julene bere maitea ikusi-ezteaz, neskatilatxuen ezagertzeaz arduraz, oldozkor, kezkatsu etxeratu zan.

Zorionez itxaropena txiro, beartsuak be iñoren baimen barik izaten daberen almen zoragarriak Kepa bere samin, oiñare, kezka mingarrietatik gaizkatzen eban. Beti geratzen jakon datorren Igandea, baiña iru datorren Igande alerrezkoetan be gertaera naiezezkoa Kepak izan ebana. Julene ez zan agertzen, eta Kepak ezagertze au dala ta, erdi zorobioturik ez ekian zer egin. Ez ekian zein erabagi artu.

Itaundu, baiña nori?, Gorandu erritxuan ez eban ezagunik. Julenen adiskide ez taldekiderik be ez eban ezagutzen. Datorren Igandean bear ba da...

Udagoineko egun eguzkitsu bat zan. Egoiaize firirtxuak lokotz, eta lokotxak astindurik, txindortxuak bere txio txio alaiakaz egun alai, Igande atsegingarria ederretsiten eten gabè saiatzen ziran goiz baten, Kepa, Joseba Koldo ta Ander, euren lagun batzukaz, mendigoizale taldekide batzukaz, ia igandero egiten eben bezela, mendira joateko goiztar jagirik, euren jaki-zorrotxua jaki gozoz ondo ornidua, makilak eskuetan eta idunean sedazko ikurrin-margodun

zapiaz, irribarre, txantxa ta alkar-zirikatzen, egunari egokion alaitasuna eurekan be osoz izanik, aize osasuntsu, garbia, arnasartu ta mendi tontorreko azkatasun sentipenagaz gozatu, erbesteratu ziran, euren erritik aldendu ziran.

Goiz aretako, leenengo orduak Kepa ta bere taldeak alai ta atsegintsu emon ebezan. Mendi tontorrean, sekulako edoi-ertz muga gabeaz, aran, ibar edatsu ta zearkatzen ebazan errekatu ur gardendunak osotzen eben ikuspegi zoragarri, lilluragarriaz gozatuz, eta amakatakotxua, koputxua, jan eta ardaosatetik bein banaka zurrutatatxu bat egiñik, jarraitu eben.

Zoritxarra, zorigaiztoa, edonun eta edozein toki ta ordutan izaten da ta, ara non, euren elmuga zan errira jaitsiteko abiatu ziranean, Kepa arrikirri moltso, pilo, txiki baten laparst egiñik, troka arritsu batera jausten dan. Jausketa gogorra benetan, aitz artean, aitz erpin artean eta eurakaz zartakatzuz odoletan, zaurituta, konorte gabe leiza sakonean aurkitzen zan. Amiltoki sakon aretara ezelako tresna barik jaitsitea eziñekoa zan ezkeru, gure mendigoizaleak oinperatzen eben mendi beratana egoan basetxe baten opa eutsen soka luzearen laguntzaz, zauritua sakotasun aretatik mendi goira jaso al izan eben.

Bereala egoera ez-naigarria ikusirik, osaetxera bialdu eben, eroan eben.

Troka, aitzarte ain sakonera biraka jausirik, mirarizkoa izan zan gure lagun Kepa bizirik geratzea ta ondiño geiago, eskail gabe, zauri ezarritasunik bere gorputz sendoan ez izatea. Bere buru, Keparen buru, aurpegi, iztar, besoak odolez agertzen ziran, ostera bere azurrak oso-osorik, azur battxu bat be apurtu gabe zan.

Osaetxean Sendagile ta bertanko langilekandik adeitsu, arduraz zaindu, jagonda, ta bere aita-ama ta adiskidekaz inguratuta izanik, Kepa alai, itxaropentsu agertzen zan. Naiz ta bere gogo, bere biotz eta burutik Julene maitearen irudia aldendu eziñak eragiten eutsan kezka, ardura min-erazlea beratu ezin, Kepa bere gogo, naimena adoretu eban.

Kepa zauriturik, itxura negargarriak osaetxean izan eban leenengo egunean, konortea erdi-galdurik, gertaera, ames, zoragarri bat, sorgoraldi lilluragarri bat, gozatu eban.

Kepa erdi-lotan zala Osagile ta bere laguntzaileak sendotzen, zauriak sendotzen zirala, euakaz batera, tarteko, sendatzailekide bat geiago bezela, Julene agertu jakon.

Julene!... bere gorputz zauritua alztatu naian, Kepak agurtu eban. Gure mutilak alegiñak egin ebazan bere eskuakaz Julenen aurpegi polita laztandu naian, baiña alperrik izan jakon.



Julene... mai...tea! Keparen espan zaurituetatik ostaz ostaz urten al izan eben.

Ola Kepa!... Zer jaso jatsu?... Ez, ez...! Ez maitea itz, barbarik egin. Itz egi-tea gaitz ba jatsu ixil ixilik egon maitea...!

Bitartean, alkar adi adi, bikotea adi-adi, maitemindurizko adeitasunez Jule-nek bere esku-zorrotxutik, Kepantzat ezaguna zan zorrotxutik, sedazko esku-zapi lurrin-gozodunagaz, mutilak izan eban biotz ikara, unki-aldiak eragiñez bekokian ta aurpegian eukan izerdia legortzen, saiatzen zan.

Kepak izan eban sorgor-aldia laburra izan zan bai, baiña sakon, zintzoa.

Gure bikote arteko ixiltasunean, alkarganako maitasun bizi-bizia oiuka agertzen zan.

Azkenean, Kepan aurpegi ta bekokia ozkirritu naian Julenek erabilli eban sedazko esku-zapitxu lurrin-gozoduna Keparen bekokia ezarririk, apurka apurka, Julenen irudia astiro-astiro ainatu, ezeztuz, ikurrin margodun edoi luze baten baneraturik, Julene Keparen ikusmenetik zuntsitu zan. Keparen ikusme-nean azkenengo zantzua, Julenek agur egiñez bere eskutxuaz bialdu eutsan muzu maitekorra izan zan. Ondoren, edoi ikurriñ-margoduna uts utsean, apurka apurka ezereztuten zala irudimena geraturik.

Kepa mutil sendo, osasuntsua zan ezker, Osagile ta bere laguntzaileen maitasunezko eguneroko lanaren bitartez, arik egun gitxitara, istripua izan ebanetik egun gitxitara, bere etxean zuzperten egoan. Bere adiskide Joseba Koldo ta Ander egunero bertan ikusten joatean jakozan, eta jakiña Julene geie-tetan euren izketaren gaia berezia zan.

Datorren astean, Larunbatan ziurki, adiskideok senda-agiria osaetxean emongo dauste, ta urrengo Eguenean, il onen ogeian, jai-eguna da ta, Goran-du errira joateko erabagia dot, lagundu al ba daustazue, eskertuko zaituet, bestela bakarrik joango naz. Ametsa, jazorikoa, Julenezaz izan dodazan ger-taerak argitaratzea, bear-bearrezkoa dot, Kepak bere adiskidei esan eutsen.

Olan jazo zan, Kepak sumatzen eban lez, Larunbat eguerdian Errekondo basetxean bazkaltzeko orduan maikide bat geiago izan eben. Poz, alaitasunez onarturik, Kepa bere sendi ta adiskideakaz barriro aurkitzen zan, zorionez guz-tiz osatuta.

Kepak Gorandura joateko artu eban erabagia betetzeko naimen osoa eban ezker, larri, urduri, itxaroten eban, baiña eguna eldu zan.

Joseba Koldo lagun ebala aitatu dogun errirantz abiatu ziran. Egun orretan ez egoan mendira igoterik. Kepak ain-beste larritasun, naigabe, oiñaze, eragi-ten eutsan arazo zadorduna alik lasterren argitu nairik, Gorandura eldu ordu-

ko, Kepa erriko plazatxua zearkatuz, artez artez Julenerantz bere oinkadak, naimenak bultzaturik, bere urratsak bere maitearen etxerantz joiazan.

Bere adiskide Joseba Koldo edantegi baten itxaroten geratzen zan bitar-tean, Kepa urduri, larri ta kezkatu, iztarrak dardaraka Julenen etxerantz joian. Bere gogoan, adimenean ebazan itaunak erantzun ongarriak izango ebezala, uste izanik, bere naimena indartuz, alai, poztasuna bere baitan nabaritzen zan, baina erantzuna naigabe, oiñaze, dolugarria, izan leitekela gogoratuz, bere naimen, adorea oinpean izaten eban.

Kepak erriko plazatxua zearkatu dau, kalean be oinkada batzuk emon dauz... bildur da... baiña Julenen etxeko atarian aurrez aurrez aurkitzen da. Iztarrak geroago ta dardaraka leiatsuan, bere naimenan geratzen jakozan indar apurrakaz Julenen etxeko mailaldia goratuz, bizileku aurrean geratu zan. Bere birikiak aizez barrirtuz, bizilekuko ate ganean ezartzea irakurririk, Pagai Zelaia iñoan, alaitasun osoz, zuzen-bidean zala uste beterik, atean dei egin eban, bizilekuko atean deitu eban.

Egun on, Kepak, atean agertu zan andrea, ule kirrudun, gaztea ondiño, begi urdiñak, Julenen irudi ber-bera izanik, bide zuzenean zala, pozez eta urduritsu be bai, agurtu eban.

Egun on, zeuri be, andreak erantzun eutsan.

Ni Kepa Galparsoro Antxia naz, Maltsbeko semea, aldean ez eban nasaitasuna agertu naian, esan eutsan.

Julene etxean da?, ba da zu ziur bere ama zara, agurtu ta beragaz alkar-izketa labur bat izatea nai nuke, jarraian Kepak esan eutsan.

Andra errukigarria itaunak eragin eutsan arritasuna bere aurpegi adikor, otzantsuan agertu ez-naian, unetxu bat ixil ixilik geraturik, aldizka, zizaka, esan eutsan.

Julene... Julene...! Gazte guztiz oker zara, zein Julenegaitik arduratzen zara?...

Julene Pagai Zelaia esanez andratxuen izketa Kepak eten eban.

Andratxuak Kepa mutil gazte oso zentzunduna ikusten eban.

Bai ezelako zalantzarik ez dot, mutil zentzunduna da, edanda dagolakorik be ez dau agertzen, bere baitan Julenen amak iñoan, baiña nire alaba maitea Julenegaitik itauntzea ta beragaz alkar-izketa bat egitea, nai izatea, zelan izan leiteke? Josus nire Jaun ta Jaungoikoa lagundu eidazu! Zador, misterio, au argiratzen lagundu eistazu!, bere biotz mindua otzandu, beratu naian iñoan.

Ondoren, mutila oso urduri, larritasun bizi-biziaz ikusirik, Julenen amak esan eutsan.

Etxe barrura sartu ta apur bat nasaitu zaitez, Kepa, egoitzara barneratzeko bide erakutsik, Julenen amak esan eutsan.

Julene bere maitearen argazkia buru zan gela txukun baten, jezarleku apatz politean jezarrita Keparen begiak Julenen argazkitik ez ziran aldentzen, alegiñak egin ebezan nasaitu naian eta bere sorgoraldia Julenen amak eten eban esanez.

Zure irrika, egarria, asetzeko uz ozkirri apur bat edatea egokia izango litza-kezu, Kepa, ur ontzi bat opatuz, andratxuak esan eutsan.

Ez, ez, mila esker. Nire egarria asetzeko edaria, ontzian eziña da opatzea. Nik maitasun egarria dot, oso premiñazkoa, Kepak bere baita, bere bjotz bar-nea osoz agerturik, erantzun eutsan.

Andra mutila euren ixiltasun aldietan, biotzetan eban larritasun, irrika, izu-garria, jasan eziñeko oiñaze, samintasun eragilea agerturik, euren amesak, burutasunak onore bardiñagaz topo egiten eban.

Olako ixilaldi bat Julenen amak onelan eten eban, esanez.

Ara Kepa, ba leiteke zuk ezagutu zenduan neskatilatxuak zu isekatu naian edo txanta-aldi bat gurean, nire alaba Julenen izena beranaren ordeiz emotea. Zoritxarrez nire alaba maitea istripu baten ondorioz, mutil gazte zoro moskor-tu batek gidaritzen eban kotxeak igaz, joan dan urtean, Ekaiñaren seian il eban. Argazki orretan ikusten dozun neskatilatxua izan zan nire alaba maite Julene. Tamala da, arik ona nire bizitza naigabe, oiñazez beterik da. Zure ega-rria ta nire itxaropena asetu eziñekoak dira.

Andratxua, ori guztiz eziña da, sedazko zapi oneik, sedazko esku-zapi oneik, Julene ta ez beste iñork ni eskuetan jarri ebazala, egiztatzen dabe, Kepak andra errukigarriaren izketa eten eban.

Bai, zuzen zara Kepa, baiña zador, misterio au, geu-geugandik iñoiz ezin-go dogu argitu. Zure ames lilluragarri ori, nire gurari, naia, ez da ezereztea, baiña nire alaba Julenen eriotza ziurtzen dauan agerkai mingarria, oraintxe erakutsiko dautsut. Zatoz nigaz.

Au esanez, Julenen ama lagun ebala, etxeko mailalditik kaleraturik, erriko kaletatik zear, ilerri, ortu-deunarantz, abiatu ziran.

Gure bikotea, andra mutila, ilobitegian barneraturik, loraz inguratuta zan ilobi baten aurrean, gelditu ziran. Bere ames, sorgor-aldi lilluragarrietatik izar-tuz, Kepa nai-ez eban gertakisun mingarriaz topatu zan.

Illobia estaltzen eban arnabarren ganean agertzen zan idazkisunak olan iñoan, "Julene Pagai Zelaia Ekaiñaren seian istripu baten ondorioz il zan. Otoiz bere alde".

Kepa ta Julenen ama, ilobi aurrean aurrez aurrez eben ixiltasun mingarriak, izugarriak, euren biotz barnetatik sutsu taupatzen eban maitasuna zintzo, azaldu eziñekoa, itzez azaldu eziñekoa, oiuka nabarmenki, agertzen eban.

Ixilean, alkar-izketa gabe, bikotea luzaro iraun eban.

Kepak neskataltxuen ilobi aurrean gurtzaldi ixilean otoiz egiñik, barriro bere irudimen ameslarien Julene bere maitea agertu jakon. Ageraldi zardoki, mingarri, biotz-mingarria izan eban.

Bere sorgoraldian gure mutilak, ilobia estaltzen eban armabarretik ikurrin margodun edoi batek inguratzen ebala, Julene bere maitearen irudia astiro astiro, zizaka zizaka, ortzi urdiñerantz jaso, igoten zala, ikusi eban, bere irudimen ameslarian ikusi eban.

Arrasti baten Gorandu erritxuan ezagutu eban jazki bardiñakaz, dantza-taldeko jantzi ta abarkakaz, bere ula kirruak buru-zapi bateaz loturik, aurpegi matrail gorrizka, maitemindurizko irribarretxua bere espanetan, Julene iñoiz baño be polit, ederragoa agertzen zan.

Kepa sorgoraldian luzaro ez eban iraun, laburra izan zan baiña sakon, bortitz, bizi bizia.

Neskataltxua inguratzen eban ikurrin margodun ikurriña, jaso, igoten zala, Julenek irribarre maitekiroz bere eskuan eroan zapi lurrin gozoz betea, bein eta barriro musukatuz Kepan eskuetan jarri eban iñotsola.

Eutsi Kepa, esku-zapi au artu eizu, nire maitasun zintzoaren ezaugarri, ikurra izan daitela, zuretzat izan daitela.

Ondoren edoitxua Julenen irudia inguratzen ebala, apurka apurka, geroago ta zizaka ariñagoan ortzi urdiñerantz jaso, igoten zala, ainatu, suntzitu, baiña mutilaren ikusmenetik sorgor-alditik, estaldu baño leenago, Julenek irribarre maitekiroz, apal, azken agurra egin eutsan, iñotsola.

Agur... Kepa... Agur... Kepa... betirarte... Agur... Kepa maitea.